

**ASTE SANTUA**

Hurrengo GOIENA eta 'Puntua' aldizkariak maiztaren 3an jasoko dituzue.  
**Ondo izan!**



# JENDE UHOLDEA EUSKARAREN ALDE

Jardun euskara  
elkarteko ordezkariak  
zapatuan, Bergara  
erdialdean, Korrikaren  
lekukoarekin.

Korrikak klika egin du Debagoieneko herrietan / 2



# Korrika jendetsu eta askotarikoa

Eguraldi ederrarekin eta, zapatuz, aperitiboaren orduan, Oñatin izan zuen lehen platera euskararen aldeko lasterketak, eta Bergaran bigarrena –Leintz aldeko ordu txikietako postrearen aurretik–. Kilometro bako herrietan ere egin zituzten ekimenak

**Julen Iriondo** OÑATI / BERGARA

Maldan behera handituz doan elur bola bezala iritsi zen Korrika zapatu eguerdian Oñatiko erdigunera. Udanatik egin zuen Debagoieneko sarrera, eta handik aurrera eten barik joan zen tropela gizentzen. Bide bazterrean, ohi bezala, jende mordoia, adin askotarikoak, familiak, aurrerago edo atzerago Korrikari batu zitzaizkienak kasu askotan.

Temperatura gorantz zihoan, eta elurrarekin gertatuko litza-tekeen moduan bola urtuz joan zen herrigunetik alendu ahala; kopuru politekoa mantendu zen, ordea, Elorregiraino. Makina bat kilometro eta lekuko aldeketa, eta irudi eder eta berezi ugari, eta bitxiren bat edo beste: Oñatzeko dantzariak Corpus dantzetan; Larrañako errefuxiatuak festan parte hartzen; Euskal Artzain Txakurren Adiskideak elkartekoak artalde eta guzti; suhiltzaileak euren kamioi eta sirenekin; eta Korrikaren aurtengo omendu Txillardegiren oroimenezko pankarta, adibidez.

Eta zer esan Bergarari buruz; festa bikoitza izan zutela. Erramu Zapatu ospakizun betearen iritsi zen Korrika herrira, eta jai batean parentesia egin eta bestean murgildu ziren milaka lagun. Korrikan. Xaxauk eman zion, adibidez, kolorea herrira sartu aurretik, Erraldoi Taldekoek erdigunean eta Euskal Gorren Elkartekoek irteeran –leloak keinu hizkuntzan emanaz–.



**OÑATI** Tatarraz taldeko patinatzaileena izan zen Debagoieneko lehen kilometroa.



**OÑATI** Antxintxiketan elkartearen zatian.



**OÑATI** Larrañako errefuxiatuak.



**OÑATI** Udanan behera, Goienako langileak Korrikaren aurrealdean.



**OÑATI** Oñatzeko kideak, lekukoarekin eta Corpus dantzetan. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO



**OÑATI** Euskaraldia batzordeko kideak.



**OÑATI** Euskal Artzain Txakurren Adiskideen elkartekoak, Zubillagan.



**OÑATI** Bideoklika lehiaketaren irabazleek ere eraman zuten lekukoa.



**OÑATI** Oñatiko Udala: Mikel Biain alkatea, Nerea Zubia zinegotzia...



**BERGARA** Angiozarko auzotarrek euren pankarta ere atera zuten.



**BERGARA** Xaxau konpartsa, animoso.



**BERGARA** Labegaraietako kuadrillak auzoan eraman zuten lekukoa.



**BERGARA** Erraldoi Taldekoak.



**BERGARA** Bergarako Udala: Elena Lete alkatea eta hainbat zinegotzi.



**BERGARA** Euskal Gorren Elkartekoak, behin herrigunea atzean utzita.



**ELGETA** Elgetako Udala.



**BERGARA** Jardun Euskara Elkarteko kideak, bide bazterreko jende oldearen txalo artean.



**ELGETA** Herri Korrika. TXOMIN MADINA



**ANTZUOLA** Korrika Txikia. GOIENA



# Gauean ere argi egin du Korrikak

Urduritasuna, poza, emozioa eta sekulako gogoia ziren nagusi domeka goizaldean herritarren artean. Tipi-tapa, tipi-tapa 21. Korrikarekin bat egin eta lasterka egiteko prest izan ziren Aramaion, Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan

**Aitor Agiriano** DEBAGOIENA

Erlojuari begiratu, behin, berriz, eta tipi-tapa bakoitza bere kilometrorra gerturatu zen. Urduritasuna ere tipi-tapa gora eta klika eta klika, emozioa ere nagusi, lekukoa bazetorren-eta herritarren eskuetara.

Domeka goizaldeko ordu biak pasata, ordu laurden inguruko atzerapenarekin hartu zuten lekukoa Oletan. Gogotsu eta ilusioz beterik, eskuz esku pa-

satuta eraman zuten aurten Maialen Lujanbiok idatzitako mezua, Leintz Gatzagako Erretiratuen Elkarteko kidek Debagoieneko 60. kilometroa, azkena, egin zuten arte. Ume, gazte zein helduk bat egin zuten gero eta zabalagoa den Korrikarekin.

**Bizipen bereziak**

Herritarrek, elkarteek, erakundeek eta familiek hainbat kilometro erosi eta parte hartzaileek

euren nortasuna ere atera zuten kilometroz kilometro egindako ibilbidean barrena: bertsoak kantatu, irribarreak, malkoak, argi suziriak, Gatzagako gatzpotea... hainbat eta hainbat aldarrikapen mezu ikusi eta ozen entzun ziren, alderik alde herritarrez osaturiko olatu koloretzu luzean.

Argazki gehiago 6. orrialdean.



ARAMAIO Oleta.




ARAMAIO Behi Alde.



ARAMAIO Pilota elkarte eta Marixe elkarte.



ARAMAIO Korrika Txikia.



ARAMAIO Eki taberna.




ARRASATE Mondragon Futbol Elkarte.



ARRASATE Musakolako Jai Batzordea.



ARRASATE Txatxilipurdi.





ARRASATE Mondragon Taldea.



ARRASATE Arrasateko Udala: Anuska Ezkurra eta Maria Ubarretxena alkatea.



ARRASATE AEK.



ARETXABALETA Aretxabaletako Udala: Aitor Gabilondo eta Unai Elkoro alkatea.



ARRASATE Arrasateko Trikitixa Eskola.



ARETXABALETA Loramendi.



ARETXABALETA Mondragon Assembly.



ARETXABALETA Emakumeak.





ESKORIATZA Ederlan.



ESKORIATZA Eingeinke elkarte.



ESKORIATZA Josu Ezkurdia zinegotzia.



LEINTZ GATZAGA Maulanda taberna.



LEINTZ GATZAGA Gazitzen elkarte.



LEINTZ GATZAGA Udaleko ordezkariak.



LEINTZ GATZAGA Erretiratuen elkarte.



LEINTZ GATZAGA Jakion eta Arbetarrak.



# "Korrikara gero eta jende pluralagoa dator"

**OSKAR ELIZBURU** AEK-KO ARTEZKARITZA KONTSEILUKO KIDEA

21. Korrika amaitu berritan, Goiena telebistako 'Hemen Debagoiena' saioan izan da Oskar Elizburu, eta hamar egun hauetako bizipenez eta balorazioaz mintzatu da

**Amaia Zabala** ARRASATE

Elizburuk Korrikaren balorazio "oso positiboa" egin du.

**Korrikaren 21. edizioa amaitu berri da; nola bizi izan duzue azken txanpa hau?**

Pixka bat nekatuta, Korrikako antolaketak tentsio handia eskatzen baitu. Dena nahi duzu ondo irtetea, hainbat kezka dituzu... Baina dena pasa da eta ikaragarri ondo ateratu da; beraz, ezin gara kexatu. Eta Korrika jaia ere bada eta afaria eta parranda ere egin ditugu. Orain, aje pixka bat ere badugu; kar, kar, kar.

**Korrikaren misterioetako bat lekukoaren mezua eta mezuaren egilea izaten dira...**

Guk banekien, baina ezin duzu kontatu, bestela duen berezitasuna galtzen du. Sekulako misterioa izaten da; izan ere, azken 200 metroetan jakiten da.

**Eta aurten Maialen Lujanbiorena izan da: Klika! Sistema eragilean. Zer iruditu zaizu mezua?**



Oskar Elizburu, Korrikaren lekukoa eramaten, Gasteizen. KORRIKA

Mezua oso potentea da. Guk klabe batzuk ematen ditugu; aurtun, esaterako, Arteman enpresarekin landutako klabeak izan dira: ez dela jakitea soilik, baizik eta egitearen konpromisoa ere bai, ekintzekin demos-

tratu behar dela, eta abar. Maialen Lujanbiori proposatu genion eta hunkitu egin zen, oso ondo hartu zuen eta hamabost egunean bidali zigun zirriborroa. Irakurtzean, berehala esan genion ez zela zirriborro bat, ikaragarria

baitzen. Mezuan bi ekarpen potente egin ditu: batetik, klika sistema eragilea; hau da, gizarte osoan eragin behar dela benetan aurrera egiteko eta hizkuntza normalizatzeko. Eta, bestetik, eragin horren ostean eraginarazi ipini du. Horrekin esan nahi du egin behar duenak ere erabakiak hartu behar dituela eta erabakiak hartzeko unea dela bai administrazioan, eta baita eragile publiko eta pribatuetan ere, euskaraz funtzionatzeko aukera izan dezagun guztiok.

**Aurtengoa Garestik Gasteizera izan da, baina zeren arabera erabakitzen da ibilbidea? Erabaki zaila izaten da?**

Urtebete aurretik hasten gara hori lantzen, AEKren batzar nagusiak erabakitzen du. Hori bai, bukatzen den hiriarren probintziako herri txiki batean hasten da beti; esaterako, 21. edizioako Korrika Gasteizen amaitu denez, Arabako herri batean hasiko da 22.a eta amaiera, berriz, Donostian izango da, txandaka doa. Beste baldintza bat da euskaltegiak dauden herri guztietatik igaro behar duela. Eta, horretaz gain, ahalik eta herri gehienetatik igarotzen saiatzen gara.

**Debagoienara ere iritsi zen Korrika; Udanatik sartu zen eta jendetza batu zen. Nola bizi izan zenuten? Izugarria izan zen; jendetza batu zen, batez ere, Oñatin eta Bergaran. Gainera, ni Korrikaren**

aurreko autoan nindoan eta ikusten nuen zenbat jende zegoen zain Korrikara batzeko, eta izugarria izan zen. Gainera, asteburua tokatu zen, eguraldiak lagundu zuen, eta horri esker adin guztietako jendeak parte hartu zuen, bizikletekin, karroekin, denetik... Jendeak imajinarioa ibili zuen, gainera.

**Hori da. Oñatin, esaterako, artzain txakurrak eta ardiak ere Korrikara batu ziren...**

Bai, eta Bergaran, berriz, erraldoiak. Oso polita geratu zen, gainera.

**AEK-kook, amaitu eta berehala, astelehenean bertan egin zenuten Gasteizen bertan 21. Korrikaren balorazioa; ze irakurketa egin duzue?**

Ikaragarria izan da, gero eta jende gehiagok parte hartzen du; baina kantitatea baino aniztasuna da garrantzitsuagoa, gero eta jende pluralagoa da; euskararekin harreman txikia izan duen edo duen jendea ere badator Korrikara, iman puntu bat lortu dugu, indartsua da. Eta hori garrantzitsua da, gure helburua euskal Herri osoa euskalduntzea baita, eta hori lortzen dugunean desagertuko gara.

**"HURRENGO KORRIKA ARABAKO HERRI TXIKI BATEAN HASI ETA DONOSTIAN AMAITUKO DA"**

## Ongietorri eta agur jendetsua Gasteizen 21. Korrikari

Maialen Lujanbiok idatzi eta irakurri du aurtengo lekukoak eroan duen mezua: 'Klika! Sistema eragilean'

**Amaia Zabala** GASTEIZ

Garesen hasi eta hamar egun eta 2.562 kilometro egin ostean, igandean heldu zen Gasteizera 21. Korrika. Gasteizkoek bertakoekin zein Euskal Herritik joandako milaka herritarrek harreman berroa egin zioten Andra Maria Zuriaren plazan, eta han eman ziren aditzera bai aurtengo lekukoak eroan duen mezua, baita horren egilea ere. Hain zuzen ere, une hunkigarria izan zen Andra Maria Zuriaren plazan zain zeuden milaka lagunendako.

Balkoira igo ziren AEK-koak eta, azkenean, argitu zen nor izan zen lekukoak Garestik zekarren mezuaren egilea: Maialen Lujanbio bertsolari. *Klika! Sistema eragilean* zen aurtengo mezua. "Mundu bat euskarak, mende erdia euskara batuak, eta ehunka mila bizitza eta gogo euskarak batuak". Horiek izan ziren Lujanbiok bertso eta olerki moduan adierazi zituen mezuaren hitzetako batzuk.

Horren ondoren, AEKren koordinatzaile nagusiak, Mertxe Mugikak, hartu zuen hitza. Es-



Gasteizko Andra Mari Zuriaren plaza Korrikaren amaiera ekitaldian. GOIENA

kerrak eman zizkien 21. Korrika eskuz esku Gasteizera inoan duten guztiei, eta gaineratu zuen edizio honek aro berri bati eman diola hasiera: "Aro berri horrek lan egiteko molde berria ere ekarri behar du, el-

karlanean eta lidergo partekatuan oinarritua. Horrela, oraindik ametsak baino ez direnak egia bihurtzeko bidean jarriko ditugu, hizkuntza-politikak elkarrekin eta elkarlanean adostuz, zehaztuz eta ezarriz. Bi urte

barru, 22. Korrikan, oraingo klikek zer eman duten eta zer bide egin dugun ikusteko eta baloratzeko aukera izango dugu".

Euskara unibertsal bihurtzeko bidea markatuta dagoela azpimarratu zuen, era berean: "Ez dakienak ikasteko klika; dakigunok erabiltzeko klika; eragileok antolaketan klika, eta administrazioek erabakietan eta baliabideetan klika. Horixe da gure konpromisoa... Klika gure aukera, Klika AEK, Klika Korrika, klika Euskal Herri euskalduna!".

Iñaki Viñaspre Arabako bertsolari txapelduna ere igo zen agertokira; eta VTR eta Urduri taldeek dantzan jarri zuten aurtengo Korrikaren abestiarekin. Horiekin batera, Josune Fernandez dantza txapeldunak ere hartu zuen parte ekitaldian.



Hauteslekuak itxi osteko boto kontaketa, 2015eko Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan. IMANOL SORIANO

#### Eneko Azurmendi ARRASATE

Espainiako Gorteetarako hauteskundeak egingo dituzte datorren apirilaren 28an, 2015etik egiten diren hirugarren hauteskundeak, hain zuzen. Izan ere, garai nahasiak bizi izaten ari da Espainiako egoera politikoa.

2018ko ekainean hartu zuen presidente kargua Pedro Sanchezek, eta, hamar hilabeteko aginte laburraren ostean, aurreratu egin behar izan ditu hauteskundeak, aurrekontuak ezin izan dituelako onartu.

#### Zer dago jokoan?

2018ko abenduan Andaluzian egin zituzten hauteskundeak inflexio puntu garrantzitsua izan ziren hauteskunde orokor hauei begira. Vox eskuin muturreko alderdia indarrez sartu da Andaluziako parlamentuan, eta horrek eragin nabarmena izan du Espainia osoko egoera politikoan. "Voxen uholde honen beldur, PPK ere eskuin muturrera jo du nabarmen, eta Ciudadanosek, bestalde, pentsatuta zuen ezkererako bira hori atzeratu egin du", azaldu du Iñaki Galdos analistak.

Hori dela eta, "eskuin gogorrenaren berpizkundeari aurre egitea edo ez egitea" dago jokoan, Mikel Irizar analistaren esanetan. "Badirudi horrenbeste indarrik ez dutela izango, baina azken momentura arte kolokan egongo da hori. Ikusiko dugu nola mobilizatzen den bakoitza", azpimarratu du.

# Sozialistak dira favorito nagusi

Espainiak bizi duen egoera politiko nahasiaren erdian, hauteskundeak apirilaren 28an; inkesta eta aditu gehienek PSOE garaile eta PP galtzaile ikusten dituzte Espainian; gehienen ustez, eskuin muturrak ez du eraginik izango Euskal Herrian

#### PSOE irabazle

Galdosek dio jokoan dagoena dela Pedro Sanchezek norekin gobernatuko duen. Izan ere, segurutzat du PSOE hauteskunde hauek irabaziko dituela. "Boto emaile askok tentazioa edukiko dute PSOERI baino gehiago, Sanchez botoa emateko, eskuinak gobernatu ez dezan, baina garrantzitsua izango da jendea konturatzea Podemosi, EAJri edota EH Bilduri botoa ematea badela Sanchezek gobernatzeko botoa ematea. Hala ere, plus bat dago hor: PSOE Ciudadanosekin ez gobernatzea. Gakoa hor dago".

#### "BENETAN JOKOAN DAGOENA DA SANCHEZEK NOREKIN GOBERNATUKO DUEN"

IÑAKI GALDOS

Irizarrek ere "nahiko garbi" ikusten du PSOERen garaipena. "Podemosek hasierako indar hura galdu du, eta PP eta Ciudadanos oso eskuinera joan dira. Beraz, espazio handia geratu zaio PSOERI. Hori dela eta, Sanchez oso lasai dabil kanpainen. Helburu bakarra da hanka ez sartzea". Gaineratu du "eskuineko hiru alderdiak" hautesle beren bila doazela -PP, Vox eta Ciudadanos-. "Espainiartasuna nork gehiago erakutsi ari dira azken hilabete hauetan. Egia da Espainian ultranazionalista asko daudela, baina ez dut uste gehiengoa denik. Orain arte, hauteskundeak irabazi dituen alderdiek zentrorako joera izan dute, eta sorpresa handia izango litzateke, hain jarrera ultra erakutsita, botoen %50era iristea", nabarmendu du.

Xabier Mugarza Ulmako kontrol ekonomikoko zuzendariak ere uste du PSOE izango dela garaile. "Erdaraz esaten den moduan, itsuen herrialdean begibakarra izateagatik irabaziko du PSOE, eta baita erradikalizaziotik ihesi eta erdia okupatu nahian dabilelako ere".

Gehiengoak osatzeko orduan ikusten ditu arazoak Mugarzak. "Nik uste dut nahiko luketela gehiengo bat Podemosekin bakarrik, baina ez dut uste hori posible litzatekeenik. Bigarren aukera Ciudadanosekin izango litzatekeela uste dut, baina Ka-

#### "ESPAINIAN ULTRANAZIONALISTA ASKO DAGO, BAINA EZ DIRA GEHIENGOA"

MIKEL IRIZAR

taluniako egoera dela-eta ez dut erraza ikusten. Hala, gehiengoa Ciudadanosekin izan edo Podemosekin eta abertzaleekin izan, ez dakit PSOEek nora joko lukeen. Ez dira erabaki errazak".

#### PP, galtzaile nagusi

Mugarzak dio "eskuma berriaren egitura" irudikatuko dela hauteskunde hauetan. "PPk jipoi ederra jasoko du", dio. "PPren boto moderatuak nora joango diren, hor dago gakoetako bat", azaldu du.

Galdosek ere uste du popularrak behera egingo dutela. "PPk bi arazo ditu: batetik, estrategikoki eskuin muturrera egin izanak eskuineko boto moderatu asko umezurtz utzi ditu. Bestetik, Casado hautagai txarra dela uste dut, eta gabezia handiak ditu. Hauteskunde gauean galtzaile nagusietako bat Casado izango dela iruditzen zait".

#### Eskuina Euskal Herrian

Voxek eta Ciudadanosek ez dute "eragin handirik" edukiko Euskal Herrian, Galdosen ustez. "PPren Arabako eserlekua kolokan egon daitekeela diote batzuek, baina nik ez dut hain argi ikusten. Hemen, gakoa izango da Podemos zenbat jaitziko den, alderdi sozialistaren uholdea zenbateraino iristen den hona, eta alderdi morearen jaitziera horrek zenbateko mesedea egiten dion EH Bilduri. Azken honek jipoi hartu zuen aurreko hauteskundeetan, baina errekupe-





ratzeko bidean dago. Ikusi egin beharko da, ordea, errehabilitazio hori zenbaterainokoa izango den. EAJ sendo ikusten dut".

Mugarzaren ustez, PPren jipoia are handiagoa izango da hemen. "Euskadiko PPko hainbat agintarik ere disimulatu izan duten arren, erakutsi dute ez daudela Casadorekin eroso. Orokorrean, Vox eta Ciudadanos ere ez ditut indartsu ikusten hemen".

EAEn bi egoera "oso interesgarri" egongo dira, Mugarzaren ustez: "Batetik, ezker abertzalearen jarrera berriaren aurrean jendearen erantzuna eta EAJ-rekin izango duen borroka; eta bestetik, eskumaren beldur, estatuko logika baten inguruan, PSOERI boto baliagarria eman diezaiokeen jendea".

Irizarrek ere EAJren eta EH Bilduren arteko lehia ikusten du hemen. "Podemos indarra galdetzen ari dela dirudi, eta horrek alderdi sozialistari mesede egingo dio. Baina euskal politikan EAJ eta EH Bildu dira bi zutabe nagusiak, eta hemengo ordezkariak zabalena biek izango dute", azaldu du.

#### Abstentzioa, bide koherentea


Ainhoa Larrañaga Mondragon Unibertsitateko irakaslea uste du abertzale eta independentistek abstentzioaren aldeko hautua egin beharko luketela. "Bakait utopia hutsa dela, baina uste dut alderdi abertzaleek ez luketela parte hartu beharko hauteskunde hauetan, eta hori izango litzateke koherentea. Ez dut uste ezer aldatuko denik bereziki, eta benetan uste baldin badugu hemen ez dagoela demokraziarik, Espainiako instituzioetan ez genuke parte hartu beharko", dio. "Batzuek edo besteek irabazi, guretzako garrantzitsuak diren gauzak ez dira aldatuko. Han dauden alderdi konstituzionalistak dira. Herri honen autodeterminazioa eta independentzia gura dugunok hau masiboki egingo bagenu, inpaktua edukiko luke. Azken finean, parte hartuta, legitimitatu egiten ditugu hauteskunde hauek", adierazi du.

#### "PP-K JIPOIA JASOKO DU ESPAINIAN, ETA ARE HANDIAGOA EUSKADIN"

XABIER MUGARZA

## Azken hauteskundeetako botoaren bilakaera Debagoiengan

ITURRIA: ESPAINIAKO GOBERNUA



#### Udal hauteskundeak

Hilabeteko epean, maiatzaren 26an, udal hauteskundeak egingo dituzte, eta, Galdosen esanetan, "ezberdin" bozkatuko da. "Apirileko hauteskundearen ostean PSOEk irabazten badu eta Ciudadanosekin gobernatu, hemengo jende asko traizionatuta sentituko da eta maiatzeko hauteskundeetan eragina izango du horrek. Kontrara, gainontzekoekin osatzen badu gobernu, sozialisten olatu honek iraungo du hemen ere".

Irizarrek EH Bilduren eta EAJren arteko lehia ikusten du, oro har, Gipuzkoan, eta baita Debagoiengan ere. "Azken hauteskundeetan, EAJk emaitza onak izan zituen, alkatetza batzuk berreskuratu zituen, eta ikusi egin beharko da mantentzen dituen. EH Bildu oso lan ona egiten ari da, indartze prozesu batean dago, batez ere barrura begira. Momentu hauetan, EAJk abantaila apur bat dauka, baina lehia izango da".

Larrañagaren ustez, panorama ez da askorik aldatuko. "EAJk hegemonia edukitzen jarraituko du. Azken lau urteotan ez dut ikusi benetako oposizio bat EAJk


egiten duen gestioarekiko. Kanpaina indartsua egin du EAJk Gipuzkoan. Ez dakit herritarren parte-hartzea areagotu duen edo ez, baina areagotu egin duela saldu duela bai, eta kanpaina horri aurre egiteko gairik ez dut ikusten mahai gainean", azpimarratu du.

#### EH Bildu eta EAJ nagusi

Goiko taulan ikusten denez, EH Bildu eta EAJ dira nagusi baita, eta hala jarraituko dutela dirudi. Esanguratsua da, halaber, 2016ko hauteskunde batzuetatik bestetara Unidos Podemosek izan zuen jaitsiera, eta, aurreikuspenen arabera, jaitsiera hori berretsi egingo da hauteskunde hauetan ere. Bestalde, taularen behealdean, PSOEn eta PPren arteko aldea handiagotu egingo da, inkesta guztien arabera, PSOEk gora egingo duelako eta PPK, behera.

#### "ABERTZALEOK EZ GENUKE PARTE HARTU BEHARKO ESPAINIAKO HAUTESKUNDEETAN"

AINHOA LARRAÑAGA



#### 2019ko OHIKO BATZAR OROKORRERAKO DEIA

Kontseilu Errektorearen erabakiz, Elkartearen Ohiko Batzar Orokorra deitzen da. Batzara Aretxabaletako kiroldegian egingo da 2019ko maiatzaren 10ean, 15:30ean lehen deia eta, kasua balitz, bigarrenean 16:00etan, egun eta toki berean, hurrengo eguneko gai zerrendaren arabera:

#### GAI ZERRENDA

1. Aktak onartzeari buruzko informea eta akordioa.
2. Memoria irakurtzea eta onartzea
  - 2.1. 2018ko Gestioari buruzko akordioa
  - 2.2. 2019ko Gestio Plana onartzea
3. 2018ko Urteko Kontuen azterketa
4. 2018ko Memoria ez finantzarioa
5. 2018ko Enaitzen banaketa
6. Erregimen ekonomikoari buruzko estatutu xedapenak
7. Copreci Koop.Eko Barne Erregelamenduko 33. eta 34. artikuluko aldatzea
8. 3/2016 Araua, Kooperatiba bazkideen Enaitzen Banaketari buruzkoa aldatzea
9. 2/2016 Araua, Kooperatiba bazkideen Aurrerakin maila finkatzekoari buruzkoa aldatzea
10. Osagaien Dibisioa eta Fagor Taldeari buruzko txostenak
11. Kontseilu Errektorearen jakinarazpenak
12. Kontseilu Errektorea berritzea
13. Zaintza Batzordetako kideak berritzea
14. Kontseilu Soziala berritzea
15. Galderak eta eskaerak

Kontseilu Errektoreko Lehendakaria  
Aretxabaleta, 2019ko apirilaren 17an



Bergarako IAT tailerrean ibilgailuei ikuskaritza teknikoak egiten. XABI GOROSTIDI

#### Amaia Zabala BERGARA

Urnietako eta Irungo Ibilgailuen Azterketa Tekniko (IAT/ITV) tailerretan egunean 3.000 deitik gora ari dira jasotzen eta linea kolapsatuta dago, webgune bidez ere ezinezkoa da hitzordua hartzea eta, ondorioz, asko eta asko tailerrera bertara ari dira joaten txanda eske. Tailerrean bertan ere hitzordua hartzeko ilarak daude. Une honetan, ekain amaierarako ari dira txandak ematen.

Bergarakoaren kasuan, egoera ez da aurreko bietan bezain dramatiko, eta telefonoz saialdi batzuk egin ondoren lortu daiteke hitzordua. Hori dela eta, hainbat gidari kanpotik etortzen dira Bergarako tailerrera ibilgailuaren IAT egitera.

Fernando Legaz Bergarako IAT tailerraren arduradunaren esanetan, Irungo eta Urnietako tailerrak kolapsatuta egoteak ekarri du Bergarako ere kolapsatzea. "Inoiz gure tailerretik pasa ez diren ibilgailuei ari gara azterketak egiten, gure bezero inoiz izan ez diren gidariak datoz, gainontzeko eskualdeetatik, eta, ondorioz, betiko bezeroei ezin diegu nahi genukeen zerbitzu azkarrik eman eta kexatzen ari zaizkigu". Gaineratu du Urnietakoan eta Irungoan egoera hobetzean egonkortuko dela Bergarakoan ere.

**Beste eskualdeetatik Bergarara**  
Jon Ander Agirrezabala ibartarrak, esaterako, Urnietako tailerrean egiten dio beti ibilgai-

# IAT tailerrak, kolapsatuta

Bai ibilgailuen azterketak gero eta zehatzagoak direlako, bai gero eta ibilgailu gehiago daudelako, Gipuzkoako IAT tailerrak kolapsatuta daude eta hiru hilabetera ari dira txandak ematen; Eusko Jaurlaritzak neurriak hartuko dituela jakinarazi du

luari azterketa, baina, oraingoan, ez zuen lortu txanda hartzerik eta Bergarakoan egingo dio: "Ekainean iraungitzen zait eta Urnietakora deika ibili naiz txanda hartzeko; bi egunetan hogeit aldiz deitu nuen eta ez zidaten telefonoa hartu, Internet bidez ere ez zidan aukerarik ematen, eta lagun batek Bergarakoan saiatzeko esan zidan; eta horrela egin nuen. Aurreko astean hartu nuen txanda Internet bidez eta ekaineko bigarren asterako lortu nuen; hori bai, oso ordu gutxi zeuden libre". Agirrezabalak gaineratu du bere

**BESTE ESKUALDE  
BATZUETATIK  
BERGARAKO IAT  
TAILERRERA  
ETORTZEN DIRA**

beste lagun batek Urnietako tailerrera bertara joanda lortu duela hitzordua eta Arbizuko tailerrera joan den lankide bat ere baduela: "Gaueko lana egin eta goizeko seietan irtetean Arbizura joan zen. 06:45erako han zegoen eta ordurako laurogei auto zituen aurretik zain. 12:00etan egin zioten ibilgailuaren azterketa".

#### Debagoienetik Gasteizera

Batzuk beste eskualde batzuetatik datoz Bergarakora, baina beste asko, berriz, Gasteizko, Iruñeko eta Arbizuko tailerretara doaz Debagoienetik, hitzordurik gabe ere funtzionatzen duten tailerretara, hain zuzen. Horietako bat Maribel Herrera Ugarte oñatiarra da: "Bat-batean ohartu nintzen autoaren IAT iraungita nuela, eta, presaka, Bergarako IAT tailerrera jo nuen;

ez nuen txandarik lortzen, eta, ondorioz, Urnietakora jo nuen. Azkarrena hiru hilabetera ematen zidaten han. Ezin dut hainbeste denboran ibilgailua IAT egin gabe ibili, eta jakin nuen Gasteizen hitzordurik gabe IAT egiteko aukera dagoela; beraz, bertara jo nuen".

Herrera gaineratu du behin Gasteizko tailerrean zegoela hiru ordu itxaron behar izan zuela: "Nik hiru ordu egin nituen zain, baina baziren lau egin zizutenak ere. Bertako langileak jakinarazi zidan iraileko araudi berria dela eta hamar urtetik

**ARANTZA TAPIAK  
ESAN DU GIPUZKOAN  
BI IAT ESTAZIO BERRI  
IREKITZEA AZTERTZEN  
ARI DIRELA**

beherako ibilgailuei azterketa zehatzagoa egiten dietela. Antza, USB sarbide baten bitartez ordenagailura konektatzen dituzte eta bertan autoaren historial guztia agertzen zaie. Nire kasuan, tailerreko langileek denbora luzea pasa zuten autoak sarbide hori non duen aurkitzen."

#### Gero eta ibilgailu gehiago

Hego Euskal Herriko Automobil Klubaren esanetan, kolapsoaren arrazoiak hainbat dira: batetik, Herrerak dioen moduan, ibilgailuei E-OBD irakurketa sistemen bitartez egiten zaien azterketak ibilgailu bakoitzarekin denbora luzeagoa igarotzea; bestetik, ibilgailuak gero eta zaharragoak direla; eta, azkenik, duela hamar urte baino 31.247 auto daudela egun, denera 488.308 auto, eta, ondorioz, eskaera asko handiagoa dela.

Hori dela eta, arazoa konponetzearen garrantzia azpimarratu du elkarte horrek: "Agintari eskudunek pilak jarri eta egoera hau konpondu behar dute, eta gidari guztiei zuzenean eragiten ari den arazo honi konponbide bat ezarri". Bestalde, ibilgailuak beste probintzia batzuetara pasatzera joateak eta herritarrak IAT pasatu gabe zirkulatzen ibiltzeak dakarren arriskua azpimarratu du.

#### Bi tailer berri

Arazoaren handitasuna ikusita, Arantza Tapia Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailburuak pasa den astean adierazi zuen Gipuzkoan bi IAT estazio berri irekitzea "serioski" aztertzen ari direla, "herritarren beharrei modu egokiagoan erantzuteko helburuarekin". Koka-lekuaz galdetuta, berriz, ez zuen erantzunik eman nahi izan. Bestalde, momentuko kolapso hori ahalik eta gehien arintzeko, Urnietako eta Irungo IAT tailerrek bien artean egunean 60 ibilgailu gehiago errebisatzeko konpromisoa hartu dute.

Horren harira, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailari galdetuta ea IAT iraungita baina hitzordua hartuta izanik gidariari isuna jarri ahal diezaioketen, baiezkoko erantzun du: "IAT iraungita izatea zigorgarria da eta ez da salbuespenik egingo". Era berean, Ertzaintzak ere isunak jarriko dituela dio eta txanda hartzean garaiz ibiltzeko dei egin die herritarrei.

# "Inboluzio demokratikoa gertatzen ari da"

**XABIER LETONA 'ARGIA'-KO KAZETARIA**

Arrasatearra Kazetaritza ikasketak amaitu aurretik hasi zen erredaktore lanetan eta 'Argia'-ko zuzendaria izan da hainbat urtez. Egun, kazetari dihardu aldizkarian

**Maialen Regueiro** ARRASATE

1919an jaio zen aldizkari erlijioso gisa *Zeruko Argia*, eta ondoren informazio orokorreko aste-kari bilakatu. Aurten, gainera, ehun urte beteko ditu *Argia*-k. Bertako zuzendaria izan da 2002tik 2013ra bitartean eta gaur egun kazetaria da Xabier Letona arrasatearra.

**2.600 zenbakitik gora izango ditu Argia-k ehun urte hauetan.**

Ez dut gogoratzen zein den kaleratutako ale kopurua, baina 2.600ren bueltan ibiliko da. Izan ere, gaur egun, 2.601. zenbakia lantzen ari gara, baina ez dakit hasieran egindakoak kopuru honen barruan sartzen diren.

**Zein fasetan dago zenbaki guztiak digitalizatzeko proiektua?**

Eusko Jaurlaritzarekin lanean ari gara proiektu hau posible egingo duen akordio bat bideratzeko, nahiz eta hainbat falta zaizkigun lotzeko. Gure asmoa da urte bukaerarako, alegia, Euskararen Egunerako horren lagin bat izatea ikusgai.

**Ondare handia izango duzue.**

Ondarea handia da kuantitatiboki, baina baita kualitatiboki ere. Kazetaritzaren ikuspegitik, gehien metatutakoa azken 80 urteetako litzateke, baina aurretik egindako materiala ere sekulakoa da.

**Zerk egin du posible Argia-k ehun urte betetzea?**

Euskarazko kazetaritza egin nahi izatea nabarmenduko nuke. 1919an *Zeruko Argia* aldizkaria egiten hasi zirenak euskaraz hasi ziren mezu erlijiosoak adierazten. Gerora, beste faktore batzuen eragina egon da, baina oinarritzak euskarazko kazetaritza egitearen nahia izan da.

**Nola iritsi zinen Argia-ra?**

1988an Bilbon Kazetaritza ikasten ari nintzela iritsi nintzen *Argia*-ra. Momentu hartan, gainera, aldizkaria oso indartsu zegoen, *Egunkaria* sortzeko proiektuan murgilduta zegoela-



Xabier Letona arrasatearra Goienako platoan. M.R.

## "ARGIA'-KO KOMUNITATEKO KIDEEK MAIATZEAN OSPATUKO DITUGU EHUN URTEAK"

ko. *Egunkaria* sortzeko taldea osatzen ari zen eta proiektu hura aurrera eramateko zegoen ilusioa izugarria zen. Garai hartan sortu zen baita ere Arrasaten *Arrasate Press*, eta, modu horretan, tokiko komunikazioa indarra hartzen hasi zen.

**Zu iritsi zinenetik asko aldatu da?** Maila guztietan izan dira aldaketak. 30 urtetan, esaterako, gauza asko aldatu dira. Baldintzak eta euskarazko kazetaritzaren egoera aipatuko nituzke. **Barne egituraketa berria izan da Argia-k izandako aldaketetako bat. Nolakoa izan da esperientzia?**

Aldaketa hau ez da erabat berria, badatorren zerbait baizik. Izaera kooperatiboa duen ekonomia sozialeko enpresa bat gara 1980az geroztik. Azken urteetan ezagutzen ari naizen aldaketak ondo funtzionatzen ari dira eta hori talde indartsu bat dugulako da.

## Nola ikusten duzu euskal kazetaritzaren egoera?

Hekimen-en sorrerarekin indar handia hartu duela uste du. Hala ere, beldur maila bat ere ikusten dut eta sektore honetan gaude-nok gure artean kooperatiboak izaten jakin behar dugu, besteak beste. Horregatik, nahiz eta bakoitzak bere izaera izan, batuta egon behar dugula uste dut, sektoreak indarra izan dezan.

**Lander Arbelaitz deklaratzera deitu berria izan da. Zer deritzozu honen inguruan?**

Kazetaritza zein gizarte osoan inboluzio demokratiko handi bat gertatzen ari dela esango nuke. 2007az geroztik atzerakada handia gertatu da lan munduan eta arlo ekonomikoan. Eskuineko alderdiek indarra hartu dute Europako toki batzuetan eta horren eragina ere nabaritu da gizartean. Hala ere, egoera honetaz jabetu behar dugu, eta aurrera jarraitu.

**Zer prestatu duzue mendeurrena ospatzeko?**

Hitzaldi asko egiten ari gara eta egingo ditugu toki desberdinetan. Maiatzean, berriz, Errioxan ospatuko dugu *Argia*-ko komunitateko kideek mendeurrena.

## Urte erdi baino gehiagoko arazoa botiken hornikuntzarekin

Martxoaren 17ko astean, esate baterako, 96 botikekin izan zen horniketa arazoa estatuko 94 probintzietan

**M.R. DEBAGOIENA**

Dagoeneko urte erdi pasa da farmazietan egunerokotasunean gaixoei hartu beharreko botiken horniketa ezaren arazoa jasaten hasi zirenetik eta egoerak ez du hobera egin farmazietako arduradunen esanetan eta noski, arazo honek bezeroengan eragiten du zuzenean.

Arazo honen arazoak askotarikoak dira, besteak beste, botiken ekoizpen eta lehengai falta, botiken prezioen politika edota eskaeran areagotzea. Guzti honek botika askotan izan du eragina, nahiz eta horietako askok baduten ordezkorik. Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarrekin emandako datuen arabera, 2019ko martxoaren 17ko astean 96 botikek izan zuten horniketa arazoa estatuko 24 probintzietan.

Arrasateko Musakola farmazian esate baterako, 2018an hasi ziren botiken horniketa falta sumatzen: "Farmaziek biltegietara egiten ditugu botiken eskaerak eta arazoa hasi zenean, eskaerak bueltan etortzen zitzaizkigun botika horiek ez zeudelako. Beste datu base batean begiratuta, konturatu ginen beste farmazia batzuek gure

arazo berdina zutela, beraz nahiko orokorra da".

Oñatiko Garate farmazian ere arazo bera jasaten ari dira: "Gaur egun 50 botiken horniketa falta daukagula esan dezakegu. Gure kasuan, izan dugun Aspirina falta nabarmenduko nuke. Izan ere, bezero asko ditugu botika honen beharra izaten dutenak eta ordezkotzat eskaini behar izan diegu, baina askok ez dute ordezkotzat botika hori erosi nahi izan".

## Bezeroengan eragina

Farmazietako langile zein arduradunak ez dira arazo honen erantzuleak, baina era batera edo bestera bezero askoren kezak jaso dituzte arazoa hasi zenetik. Egoera honen aurrean eta bezeroen haserre edo ezinegona gutxitze aldera, farmaziek arazoaren berri eman diete gaixoei. Horrez gain, horretarako aukera egon denean, ordezkotzat botika eskaini zaizkie, baina botika batzuek ez dute ordezkorik, Apocard, esate baterako. Horrelako kasuetan, farmazietako langileek medikuarengana edota ospitalera bideratu dituzte gaixoak.

## Elkarrekin Podemos batera doaz Arrasaten eta banatuta Bergaran

Igor Urizar izango da koalizioaren Arrasateko alkategaia; Aretxabaletan eta Eskoriatzan ere aurkeztuko da

**Eneko Azkarate** ARRASATE

Elkarrekin Podemos koalizioak Debagoieneko hiru herritan aurkeztuko ditu zerrendak: Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Azken unera arte negoziatzen ibili dira Ahal Dugu eta Ezker Anitza Arrasaten. Zerrendako lehen postuak erabakitze-ko negoziazioa "gogorra" izan da, Ezker Anitza-ko kide batek GOIENARI adierazi dionez. "Azkenean, amore eman dugu interes orokorraren alde", esan du. Igor Urizar izango da alkategaia eta Eba Abuin bigarrena,

biak ere Baleike Arrasateko zinegotziak gaur egun; Irabaziko zinegotzi Juan Luis Merino izango da hirugarrena. Aretxabaletan, Iker Carrasco izango da zerrendaburua eta Eskoriatzan Salva Gonzalez.

Bergaran, banatuta aurkeztuko dira: Irabazi, batetik, Aiart Lizarralde gaur egungo zinegotzia izango dela alkategaia, eta Ahal Dugu, bestetik. Azken horretan, Jose Maria Sasieta izango da zerrendaburua. Moreek lehen aldiz aurkeztuko dute zerrenda Bergaran.



Politikari jeltzaleak Arrasaten astelehenean eginiko ekitaldian. EAJ

## "Pentsioen igoera Madrilen lortutakoari esker izan da"

Pentsioak Euskaditik bertatik kudeatu ahal izatea aldarrikatu dute jeltzaleek Arrasateko ekitaldian

**Amaia Zabala** ARRASATE

Iñigo Barandiaran –datozen hauteskundeetan Kongresurako EAJko Gipuzkoako hautagaia–, Joseba Agirretxea eta Maribel Vaquero –Kongresurako eta Senaturako Gipuzkoako zerrendaburuak– eta Toledoko Ituneko ordezkariak Arrasaten izan ziren astelehen goizean.

Jeltzaleek Arrasaten egin zuten ekitaldian aldarrikatu zuten etor daitezkeen "mehatxu berrien" aurrean pentsioak Euskaditik bertatik kudeatu ahal izatea.

**Pentsioen igoera**

Horrez gain, Barandiaranek hauxe azpimarratu zuen: "Ez da ahaztu behar EAJk Madrilen lortutako akordioari esker lortu dela pentsioak KPIaren arabera igotzea, eta lorpen hau ez dela soilik pentsiodun euskaldunentzat, baizik eta pentsiodun guztientzat". Aldi berean, Barandiaranek alargunen pentsioak arautzeko oinarriaren igoera orokorra aipatu zuen, aurrerapauso "sendoa" dela esanda.

Arrasatez gain, Oñatin eta Eskoriatzan ere izan dira.

## "Demokrazia, justizia soziala eta berdintasuna" helburu

Aizpuruak eta Iñarritik EH Bilduren konpromisoak aurkeztu zituzten astelehenean Oñatin

**Amaia Zabala** ARRASATE

EH Bilduk euskal gizartearekin hartutako konpromisoak aurkeztu zituzten astelehen goizean, Oñatin, Mertxe Aizpurua eta Jon Iñarritu Kongresurako Gi-

puzkoako hautagaiek. ERCrekin sinatu duen akordio estrategikoaren baitan, EH Bilduren konpromiso politikoaren oinarriak hauek izango dira, azaldu dutenez: "Autodeterminazio

eskubidearen defentsa, murrizketa sozial eta ekonomikoak iraultzea, politika feministak bultzatzea eta preso politikorik gabeko gizarte baten aldeko lana egitea. Lan erreforma, *Mozal legea* eta LOMCE atzera botatzeko funtsezkoak izango gara, bai eta pentsioak eta gutxieneko soldata igotzeko ere", argitu zuten bi hautagaiek.

**Arnaldo Otegi Arrasaten**

Zapatuan, berriz, Arnaldo Otegi EH Bilduko koordinatzaile nagusia Arrasaten izan zen, eta, Iraitz Agirrek gidatutako elkarriketan, egungo egoeraren irakurketa egin eta alderdiaren ikuspuntuak azaldu zituen: "Gure artean giro polita dugu eta ilusioa piztu da". Espainiako Gorteetako hauteskunderi begira ere baikor agertu zen.



EH Bilduk astelehenean Oñatin eginiko ekitaldian. EH BILDU

## Odon Elorza Arrasaten

Hauteskunderen atarian, sozialistek arrosak banatu zituzten aurreko barikuan Arrasateko azokan, herritarrak erakartzeko asmoz. Odon Elorza izango da Gipuzkoako zerrendaburua Espainiako Diputatuen Kongresurako, eta, haren esanetan, Alderdi Sozialista da "eskuineko inboluzioari aurre egiteko aukera bakarra".



ENEKO AZURMENDI



# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



## DENTISTAK

### ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otarora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Boente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65  
Elgeta / Torrealedea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskorialza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk. / 943 71 47 36

### SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 76 71 69

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

## DIETETIKA

### BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

### GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### JULEN MURUAMENDIARAZ KIROPRAKTIKA ZENTROA

Bergara / Ibargarai 41 / 688 80 16 72

### LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

### AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

### MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

### OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKOLOGOAK

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

### VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

### IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## YOGA

### SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea

943 76 11 38 / 639 23 57 53.



ZABALIK

IRAITZ AGIRRE ARANGUREN

## Bukaera guztien hasiera

Adinaren zera izango da, beharbada, baina azkenaldian askotxo berba egiten ari gara inguruko tribu-kideon artean ziklo eta bizimodu aldaketetz.

Berba egiten eta ziklo aldaketan arteko jauzi horiek bizitzen, halaberrez edo hala gura izanda.

Bakoitzaren heldu-lekuak edo haustura-lekuak edozein direlarik ere, egun batetik bestera, goitik behera eta ezker-eskuin, gure bizitzaren oinarritzat izan dugunak dar-dar egin, eta beldurrik sakonenekin dantza bihurrian aritzea egokitu izan zaigu.

Zikloak hasi, garatu eta itxi egin behar omen dira.

Batzuetan, hil ala bizi edo bizi eta irauteko ezinegonak kudeatzen ari garela iruditzen zaigu eta beste batzuetan, praktikaren ekinaz, apenas ezer aldatzen ez dela konturatzen gara.

Hala ere, behin eta berriz horrela sentitu arren, kuriosoa da ixtear diren ate horien aurrean, mingarri agian baina

ezagun dugun horri estu lotzeko joera zein handia izan daitekeen. Ohitura inertziara lotzen gaituen indar boteretsua da. Horregatik matxinatzen zaizkigu barruko mamu guztiak itxiera eta irekieren artean.

### EZAGUTZEN EZ GENITUEN ZENBAT MUGAREKIN EGIN DUGU TOPO? ZENBATI EGIN DIEGU AURRE?

Er du merezi orainaldia etorkizunik ez duen iraganean katramilatuta pasatzea, ordea, jada itzuliko ez diren sentimendu eta momentuetan kateatzeak merezi ez duen bezala. Ezagun den horretatik ezezagunera mugitzeak badu abentura kutsu bat gainera, bizi izandakotik ateratako ikasgaien memoria osatzeko aukera ezin hobea eskaintzen digu eta.

Zer ikasi dugu dantzaldi honetan? Zerk harritu gaitu gehien gutaz? Ezagutzen ez genituen zenbat mugarekin egin dugu topo? Eta zenbati egin diegu aurre?

Gogo-gorputzetan bizi ditugun eraldaketa guzti horiek, kentzen digutena baino askoz gehiago ematen digutelakoan nago.

Hala beharrez edo hala gura izanda, garrantzitsua da zikloak ixten joatea, bukaera guztiek dute-eta hasiera bat.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Txapelak

**JON ORDOÑEZ GARMENDIA**

[HTTPS://LABUR.EUS/L58FL](https://labur.eus/L58FL)  
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Zaleak ez du berehala ahaztuko atzo amaitu zen Euskal Herriko Itzulia.

Hamasei urte geroago, Iban Mayok 2003an irabazi zuenez geroztik lehen aldiz, euskal txirrindulari batek irabazi du.

Meritu izugarri handia du Ion Izagirrek atzo lortu zuen txapelak.

Azken urteetan ohikoak izan dira euskal txirrindularien etapa garaipenak World Tourrean, baina horiek itzuli batekin borobiltzea falta zen: azkena

Izagirrek berak eskuratu zuen duela ia lau urte Polonian, eta orain ere berak lortu du, etxean, Euskal Herriko zaleen aurrean, karrera zirrarragarri batean.

Nabarmentzekoa da Itzuliak aurten izan duen itxura aldaketa.

Berritasunekin zetorren, eta antolatzaileek bete-betean asmatu dute.

Egon dira hutsuneak antolaketan; atzo Eibarko helmugarako metro batzuen faltan gertatutakoa horien adibide.

Baina, kirolari dagokionez, ikusgarria izan da karrera.

Txirrindulariek eta zaleek gozatu eta elkar gozarazi dute, sinbiosi bikaina osatuz.

Euskal txirrindularitzak behar ditu etapa eta itzuli garaipenak, behar ditu karrera zirrarragarriak, behar ditu lanegun batean bide bazterrek bete eta ziklistak maldan gora oihu eta txalo artean eramango dituzten zaleak...

Baina, batez ere, txirrindulariak behar ditu, eta horretan ere itxaropentsu egoteko modukoa izan da aurten Itzulia, Euskadi-Muriasek Euskadi Fundazioari bat egiteko eskaintza egin diola jakin baitzen astelehenean.

Bikain hasi zen Itzulia, eta bikain amaitu da.

Txapelak asko dira.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkartea  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Aitor Izagirre.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantzabal.

#### Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goyatz Arana,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.  
Zuzendari komertziala  
Mireia Larrañaga.  
Administrazio zuzendaria  
Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

#### Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

#### Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

#### Publizitatea

Mireia Larrañaga,  
Amaia Mundiñano,  
Ziortza Martin.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 00  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)

#### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

#### Lege Gordailua:

SS-965/2014  
ISSN: 2174-369X  
Tirada: 19.000 ale  
Difusioa: 18.723 ale

#### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA**

## BERBAGAI

# "Berriro egingo nuke egin genuen presoen aldeko lana"

Ekain Zubizarreta HERRIRA MUGIMENDUKO KIDEA

**Eneko Azkarate** ARRASATE

Ekain Zubizarreta mondragoetarra presoen eskubideen alde lan egitearren atxilotu zuten 2013an. Irailean epaituko dute, beste 46 pertsonarekin batera.

**Zer leporatzen dizute?**

ETAko kide izatea eta terrorismoa goratzea. 13 urte eta erdiko espetxe-zigorra eskatzen du fiskalak. Bost urte erdi pasa dira atxilotu gintuztenetik. Ordutik gaude baldintzapeko askatasunean, hamabostean behin epaitegian aurkezten eta Estatutik ateratzea galarazita.

**Zer egin duzue zuk zeuk eta zeu bezala epaituko dituzten besteek, zehazki?**

Preso politikoen eskubideen aldeko mobilizazioak antolatu, herrietako dinamikak bultzatu, eragile ezberdinekin harremanak izan... Hau da, herrigintzako lan normala.

**Lasai zaude?**

Kezka apur bat badaukat. Kartzela-zigor eskaera handia da, edozein larritzeko



Ekain Zubizarreta, oraingo astean. GOIENA

modukoa da. Ingurukoendako ere egoera ez da samurra. Atxilotu gintuztenetik, bakoitzak egin du bere ibilbidea... 50 seme-alabatik gora izan ditugu... Baina, bestetik, lasai nago. Egin

genuen lana berriro egingo nuke, publikoa izan da...

**Atxilotu zintuzteneko ze oroitzapen duzu?**

Atxilotu aurreko egunak nahiko itogarriak izan ziren, jazarpen handia pairatu

genuen, auto asko atzetik... Atxiloketa modu zelebrean izan zen. Etxeko hondakinak ateratzera jaitsi nintzen etxeko zapatiletan eta atxilotu egin ninduten kalean. Intxaurrendora eroan ninduten; handik Madriler... Egoera penagarriak pasa genituen. Txanponaren beste aldean, elkartasun adierazpenak asko izan ziren. **ETAk jardun armatua behin betiko amaitu zuen, desegin ere egin zen, baina makroepaiketek jarraitu egiten dute.**

Bake egoeran, bizikidetzaren aldeko hainbat urrats egiten... logika baten testuinguruan egin dugu lan. Baina ikusten dugu inboluzio edo erregresio bat eskubideei dagokienez. Gizartearen gehiengoak gura du bakean eta bizikidetzan oinarritutako etorkizuna, baina gaur egun oraindik ere preso eta iheslarien egoerak oso makurra izaten jarraitzen du: sakabanaketa, isolamendua, gaixo larriak kartzelan... Jendearen konpromisoa beharrezkoa da egoera horri aurre egiteko.

**Nola egingo diozue aurre epaiketa honi?**

Hiru hilabetez egon beharko dugu Madril; gastu handiak sortuko ditu. Laster zehaztu eta aditzera emango ditugu laguntza moduak.

## HAU BE BADOGU!

**Korrikaren amaierak askorako eman du**



#Korrika eta #Klika dira aste honetako txiolarien etiketa nagusietakoak:

@ggoikoetxea: "Bukatu da #korrika. Egin dugu barre eta negar, pasatu ditugu hotzak eta beroak, igaro ditugu muinoak eta zelaiak. Euskal Herria ikusi dugu, herria sentitu. Eta inportanteena: klika egiteko deia zabaldu dugu".

@AEK\_eus: Milaka kilometro amets berri baten bila inurrien antzera, pauso txikiz aurrera, amestera zuekin dena da posible".

**'Tronuen Jokoa' berriro berbagai**

#GameofThrones telesail ospetsuaren azken denboraldia estreinatuta du HBOk Espainian eta Hego Euskal Herrian. Ikusmina eta jakingura sortu du sarean ere:

@Iskiah: #JuegodeTronos ikusiko ez duen gizaseme bakarra izango ote naiz?

@KZguneaTIC: Asteburu hau arras aprobetxatzeko, Gaztelugatxeko Donienera bueltatxo bat emateko aholkatzen dizuegu. Gainera #GameofThrones-en azken denboraldia hastear dago.

**Ciudadanos Erreterian**

Ciudadanos-en Erreterian ekitaldiak, horren aurkako agerraldiak eta osteko istiluek ere ez dute inor epel utzi:

@julenmendoza: "Ciudadanos-ek Erreterian hartu du, Ebrotik behera botoak lortzeko".

@ionansa: Ez gara probokazioan eroriko, ez dizuegu kanpainarik egingo. Ziur nago barregarri utziko zaituzten sormenez erantzun dizuegula". [Ciudadanos Erreteriarri zihola jakin zenean].

## ITURRI ONETIK

## Eukaliptorik ezingo da landatu Aramaion

Aramaio udalbatzak erabaki du eukalipto landatzea debekatzea udalerrira osoan. Erabakiaren berri gaur argitaratu den Euskadiko Buletin Ofizialak dakar. Aramaio Plan Orokorra aldatu egin du Udalak, eta horren barruan jasotzen da debekua. Basoa babestea du helburu neurriak. Hortaz, azkenaldian gaixo diren pinuen ordez ezingo da eukaliptorik landatu Aramaion; izan ere, adituek diotenez, suteak izateko arriskua ehun aldiz handiagoa da.

## ALBISTE IZAN ZEN

2010-04-14

## Herri galdeketa antolatzearen epaitua

2007ko irailean, Aramaion, Abiadura Handiko Trenaren gaineko herri galdeketa antolatzeagatik epaitu zuten orduko Aramaio alkatea, Asier Agirre. 2010ean egin zuten epaiketa, Gasteizen. 9 urteko inhabilitazioa eskatu zuen fiskalak; defentsak, absoluzioa. Agirrek esan zuen herritarrek aukera izan beharko luketela iritzia emateko proiektuen gainean. Eskualdeko EAE-ANVko hainbat alkate eta zinegotzi izan zituen alboan Agirrek.



# Parabellum eta Kañeria 13, San Andresko jaietan

Aste Santuko oporraldia amaitu ostean ez da aitzakiarik egongo triste egoteko: apirilaren 30etik maiatzaren 5era arte, San Andresen jaia izango da nagusi; rock kontzertuak, herri bazkaria eta gaztetxoentzako ekintzak izango dira, besteak beste

## Xabi Gorostidi ARRASATE

Adin eta gustu guztiak asetzeko egitaraua prestatu dute San Andresko Jai Batzordeko lagunek. "Aurtengo antolaketan asko igarri dugu *Porru*-ren falta, erretiratu egin da eta. Beti bezala, nagusientzako eta txikientzako ekintzak antolatu ditugu, eta nagusien bazkarien 80 urtetik gorako 70 lagun elkartuko dira. Esfortzu handia egin dugu autofinantzaketa kanpainan, eta horri esker Parabellum eta Bourbon Kings taldeak ekarri ditugu".

## Bost eguneko egitaraua

Apirilaren 30an egingo du ez-tanda jaiak, 17:00etan botako



Kañeria 13, Eguzkierripa Rock jaialdian jotzen. IMANOL SORIANO

duten txupinazoarekin. 17:30ean, txokolate-jana egingo dute Plaza Berrian; 20:30ean, *beatbox*-a eta umorea batzen dituen BocaBeats taldearen ikuskizuna; eta 22:00etan, cricket dardo txapelketa Equis tabernan.

Eguaztenean, auto telegidatuaren ikuskizuna, puzgarriak, meza, helduen bazkaria, tute txapelketa eta Antxon magoaren ikuskizuna izango dira.

Barikua tuper bazkariarekin hasiko dute. Ostean etorriko dira txikientzako tailerrak eta buruhandiak, eta, eguna borobiltzeko, rock kontzertuak, Arrasateko zigiluarekin: Libertad Condicional talde gazteak eta Kañeria 13 garagartzarrak joko dute; azken horiek auzoko fitxaketa bat izango dute gitarra jotzen.

Zapatuan, puzgarriak eta txar-rangak girotutako poteoa izango dituzte goizean. Ostean, herri bazkaria, poneyak eta bigantzak, eta baita kontzertuak ere: Parabellum eta Bourbon Kings.

Domekan, erraldoiak eta txistulariak kalera irtengo dira goizean, eta arratsaldean, mus txapelketa eta Potx eta Lotx pailazoak izango dira.

## Lau proposamen Aste Santurako, Turismo Sailaren eskutik

Apirilaren 20an Arrasateko esparru gotortuak ezagutzeko bisitatxoa egingo dute. Apirilaren 21erako, ordea, Anporretako bira edo *Burdinaren bidea* izenez ezagutzen den ibilaldi gidatua antolatu du Turismo Sailak. Burdinak antzina egiten zuen bidea ikusiko dute, eta Itturritxipiko gaina, Epeleko gaina eta gerra zibileko lubakiak ikusiko dituzte, besteak beste.

Apirilaren 27an, panelak interpretatzen ikasteko ibilbidea egingo dute. Horrez gain, mugikorreko *Oruxmaps* aplikazioa nola erabiltzen den ikusiko dute, eta ostean, Kurtzetxikira joango dira aplikazioarekin praktikatzeraz. Apirilaren 28an, ordea, Murugainera ibilbidea egingo dute, eta Arrasateko dragoiaren kondaira izango dute hizpide.

Bestalde, Arrasateko Turismo Sailak webgunea berri du – *Turismo.arrasate.eus* –, eta apiriletik irailera bitartean antolatu dituzten ibilbide gidatuaren zerrenda ikusgai dago.

## Debagoieneko GREMIOAK

### ARROZTEGIAK

#### AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukakleak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

[blogak.goiena.net/azkarate](http://blogak.goiena.net/azkarate)

### HONDEAKETAK

#### EXCAVACIONES Y CONTRATAS

##### ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

[e.arrasate@gmail.com](mailto:e.arrasate@gmail.com)

### ITURGINTZA

#### EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

#### OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

[f.oyanguren@ctv.es](mailto:f.oyanguren@ctv.es)

### URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

### LOREZAINNTZA

#### MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

Inagarkia jami nahil baduzu,  
deitu 943 25 05 05 zentakira.





Salaberri, Larrea, Trojaola, Encinas, Artola, Barberena eta Zabaleta, astelehenean egindako prentsa agerraldian. AMAIA ZABALA

## "Komunikabideei begira lan egitea" kritikatu dute

Oposizioan pasatako azken lau urteen balorazioa egin du EH Bilduk, eta hitz hauekin laburbildu dute Gobernuaren jarduna: "Argazki asko eta mami gutxi". Berdintasunean, auzoetan eta adierazpen askatasunean "atzerapausoak" izan direla ere salatu dute

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

"Utziko diguzue esaldi batean laburbiltzen agintaldia, bereziki EAJ-PSE gobernuaren estiloaren eragin nabarmena izan duena: argazki asko eta mami gutxiko agintaldia izan da". Gogoeta hori eginez hasi zuen EH Bilduko Eneko Barberenak azken lau urteetako lanaren balorazioa. "Kanpo-arrosa politika" egin izana leporatu zion Udala Gobernuari, eta horren adibidetzat jarri zuen kiroldegi berriaren aurreproiektua: "Pil-pilean dagoen gai bat hartuta, adibidez, ona da kiroldegi berriaren aurreproiektuarekin gertatu dena. EH Bilduren ekimenez plan estrategiko bat garatzen da eta, amaieran, aurreproiektu bat egiten da hau errespetatu gabe. Ez hori bakarrik, ez da aurreproiektu hau aurkeztu ez zinegotz osatutako kirol batzordean, ezta kirol eragilez osatutako kirol kontseiluan ere".

Gobernuaren estiloari buruz nabarmendu zuten oposizioaren

lana "mespretxatzen" ahalegin du direla, "udal batzordeak edukiz hustuz, informazioa ezkutatuz edo Udal osoari zegozkion gaiak alderdikieriaz kapitalizatuz".

**Galdera sorta**

Lau urte hauetan Gobernuak egin gabe utzi dituen ekimenei dagokienez, honako galdera hauek egin zituzten, besteak beste: "Zuen agintaldiaren ondoren, kaleak garbiago daude? Denda gutxiago itxi da? Euskara gehiago erabiltzen dugu? Udalean lanposturik egonkortu da? Gutxiago dira bazterkeria egoera dauden familiak? Droga kontsumoak behera egin du? Neguko aterpetxea zabalik dago?"

**LAU URTEZ OPOSIZIOA "MESPRETXATZEN" ARITU IZANA LEPORATU DIOTE UDAL GOBERNUARI**

Azoka konpondu duzue? Zein da Udaltzaingoaren egoera?"

**Egindako lana**

Balorazio prentsaurrekoan ez ziren Gobernuaren jarduna kritikatzera mugatu, eta Udal arloan EH Bilduk egindako "lanaren emaitzak" ere aipatu zituzten. "Gure ekimenari esker jarri behar izan ditu Gobernuak, fede gutxiz, indarkeria matxistaren aurkako plana, Arrasateko pobrezia, prekarietatearen eta krisiaren eraginak neurtzeko diagnostiko soziala, kirolaren plan estrategikoa edo aniztasun mahaia. Zoritxarrez, ez dute bide handirik izan, ziurrenik ez zegoelako eraikuntza enpresa bat atzean".

Esker hitzak izan zituzten Eneko Fernandezentzat, eta Amaia Larrañagaren oroimena ere ekarri zuten gogora. Azkenik, Maider Morrassen taldearentzat babesa eskatu zuten: "Gu iritsi ez garen tokietara iris dadin EH Bilduren aldarria eta erredua".

## Arrasate Aurrera! plataformak lortu ditu beharrezko sinadurak

Ramon Ugalde buru duen plataformak martitzenean aurkeztu zituen gutxienezko 500 arrasatearren firmak

**X.G. ARRASATE**

Hainbat herri batzar egin eta sinadura bilketa postu jarri ostean, herritarrek osatutako Arrasate Aurrera! plataformak batu ditu maiatzaren 26an parte hartu ahal izateko beharrezko zituen sinadurak. Guztira, Arrasaten erroldatutako 500 lagun sinadurak behar zituzten, eta martitzen goizean aurkeztu zituzten. "500 baino batzuk gehiago aurkeztu ditugu, badaezpada. Orain, espero dugu denak balekoak izatea, eta dagokion galbahea pasatzea", azal-

du dio Ramon Ugaldek GOIENARI. Hurrengo pausoa zerrenda osatuko duten 21 lagunak aurkeztea izango da. Ugaldek jakinarazi du apirilaren 23ra arte dutela horretarako, eta badabiltzala zeregin horretan.

2018ko urrian eman zuten aitzera Ugaldek herritarren zereenda bat osatzeko asmoa zuela, "ideologiarik gabekoa" eta "Arrasaterentzako proiektu garrantzitsuetan oinarritutakoa". Ostean, abenduaren 27an egin zuten plataforma proiektuaren aurkezpena, Herriko Plazan.



NIRE USTEZ

OSCAR GARCIA

## Demokraziaren gaixotasuna

Demokrazia eredurik perfektuena da, inperfektuen artean –eta hori da bere akats nagusia–, perfektzioa bilatzen duelako. Gogoeta horren harira, etikotzat joenez gero matxismoa edo arrazismoa sustatzen duten alderdi politikoak hauteskundeetara aurkeztea?

Argi dago etikoki ez dela zuzenena, baina demokratikoki bai, ordea. Beraz, zer egin dezakegu ideia horiek gelditzeko eta bizikidetasuna eraikitzeke gorrotoaren ordez?

Galdera honen erantzuna erraza da oso... Hainbatetan egiten ez duguna egitea, eta gure botoa ezpata bihurtzea: gorrotoaren sugari burua moztuz. Ez diot inori esango ze ezpata mota erabili behar duen horretarako, baina kasu honetan, nire botoa ez da ezpata bat izango; arrosa bat baizik.

Arrosa izan baitzen, herenegun, beste suge baten burua moztu zuena. Beraz, ezpatak, arrosak edo esku biluziak medio, egin dezagun posible arrazakeria, matxismoa, homofobia edo klasismoa gelditzea. Edo beste era batera esanda: ez dezagun egin *Torrente* gure lehendakari Madrilen.

## Apirilaren 27an egingo dugu III. motor bazkari solidarioa

**Goiena komunitatea**

Red Dragons / ARRASATE

09:00etan zabalduko dugu izen ematea, eta 11:00etan ibilbidea hasi. Ostean, pintxo-potea, bazkaria eta jolasak egingo ditugu, eta 18:00 aldera omenaldia egingo diegu gure artean ez dauden motorzaleei. Ez ahaztu galtzen ez diren jakiak ekartzeaz eta ondo pasatzeaz.

## OHARRAK

### Biteri plazako postua

Hiru salmenta postu daude, eta libre dagoena esleitu nahi du Udalak, 10 urterako. Maiatzaren 10era arte egin daitezke eskaerak, BAZen, 300 euroko bermea jarrita.

### Arrasasoi

Zoru pelbikoa indartzeko saioa egingo dute kiroldegian, apirilaren 30ean, 10:30ean eta 17:30ean.



Estricalla eta Jerry A &amp; 25th Coming Fire taldeen kontzertua. EIDER ITURRIAGA

## Egindako lanak eman du fruitua, beste behin ere

Kooltur Ostegunak ekimenaren bederatzigarren edizioa amaitu da, eta antolatzaileak "pozik eta harro" azaldu dira denboraldiak emandakoarekin; urrian hasita, 32 talde eta 4.500 ikusle inguru pasa dira Arrasateko gaztetxetik —Ishotu! jaialdia barne—

### Eneko Azurmendi ARRASATE

Crim talde kataluniarrak eman dio amaiera bederatzigarren denboraldi honi. "Iaz ere jo zuten. Talde txukuna iruditu zitzaigun, eta errepikatzea erabaki genuen. Kasualitatez, denboraldiari amaiera eman dion kontzertua izan da, eta 250 lagun inguru batu dira", azaldu du Iker Barandiaranek, Kooltur Ekintza taldeko kideak.

Ikusle kopurua ez da salbuespena izan, eta, alde horretatik, pozik geratu dira antolatzaileak. "Unidad Alavesa ikustera 380 bat pertsona etorri ziren, Rude Pride ikustera 340, Anariren kontzertura ia 300... Oso kontzertu gutxi izan dira 100 pertsonatik behera etorri direnak, eta hori oso seinale ona da. Adin guztietako jendea etorri da, eta publiko berriari atea irekitzea lortu dugu. Bestela gaztetxera etorriko ez lirakeen asko etorritzen dira kontzertu hauetara, eta hori inportantea da", dio Barandiaranek.

### Egonkortutako egitasmoa

"Azkar" pasatu dira bederatzik urte hauek, antolakuntzako kidearen esanetan, eta, "poza" dakarren arren, "nekea" ere badakar. "Dedikazio handia eskatzen duen lana da. Astero talde txukunak ekartzen saiatzen gara, kalitate minimo bat daukatenak, eta soinu ona bermatzen ere saiatzen gara. Talde edozein delarik ere, guztiei tratu bera ematen diegu, eroso egon daitezuten saiatzen gara, eta horrek ere lana dauka".

Kooltur Ostegunak "etxafuego" baten moduan hasi zen. "Jendeak sorpresaz hartu zuen eta hasieran oso erantzun ona izan zuen ekimenak. Gero, behera egin zuten, eta urte batzuetan jende

**MOTA ASKOTARIKO  
MUSIKA ESKAINTZA  
IZAN DU ETA ADIN  
ASKOTARIKO JENDEA  
BATU DA**

gutxi etortzen zen. Hala ere, buelta eman genion horri eta egitasmoa egonkortu egin zen. Jende askorendako asteroko hitzordu bihurtzen hasi zen, eta, gaur egun, 50 bat pertsona egunero hurbiltzen dira, talde bat edo beste bat egon. Jendeak formatua eta ordutegia asko baloratzen du".

### Eskerrak

Antolatzaileak eskertuta azaldu dira. "Eskerrik asko musika taldeei eta beraien laguntzaile guztiei. Eskerrik asko laguntza behar izan dugunean lagundu diguzuenoi: bizirik irauteko arnasa zarete! Eta eskerrik asko zuoi, ikusleei, zuek gabe ez genuke-eta kontzerturik egingo!", diote Facebookeko mezu batean. "Askotan esan izan digu jendeak luxu bat dela hau, eta eskerrak eman izan dizkigute. Baina haiei esker jarraitzen dugu martxan".

Datorren urtekoa hamargarrena izango litzateke. Oraindik, ordea, ez dute ezer aurreratu.

## Kadeteek Asturiasen jokatuko dute; gazteek, berriz, Valentzian

Electro Alavesa Araski Ointxe taldeak ezin izan du Euskal Ligako lauko finala irabazi asteburuan (59-46)

### E.A. ARRASATE

Gazte mailan, Electro Alavesa Araski Ointxe taldeak ezin izan zuen Euskal Ligako lauko finala irabazi pasa den asteburuan. Izan ere, finala galdu egin zuten Asador 10 Gibajas taldearen aurka (59-46). Partidua azken laurdenean erabaki zuen talde irabazleak. Hala ere, Espainiako klub txapelketa jokatzeko aukera izango dute, Valentzian, maiatzaren 19tik 25era.

Kadete mailan, Ointxe-Araski taldeak Avilesen (Asturias) jokatu du Espainiako klub txapelketa, maiatzaren 5etik 11ra bitartean.

Aurrez, baina, Euskal Ligako txapelkun izateko lauko finala izango dute, Iturripen. Apirilaren 27an izango dira bi finalurrekoak eta 28an, finala. Easo Slam! Gigantes, Gernika Kebs eta Asador Gibajas 10 taldeak izango dituzte aurkari.

### Pazko Asteko campusa

Urtero moduan, aurten ere saskibaloia campusa antolatu du Ointxe!-k. Apirilaren 23tik 27ra egingo dute, Eneko Mataren gidaritzapean, eta 2003-2010 urte artean jaiotakoek zuzenduta egongo da. Izena emateko bide bide daude: [eneko.mata@hotmail.com](mailto:eneko.mata@hotmail.com) helbidera idatzita edo 629 80 47 82 zenbakira *whatsapp* mezua bidalita. 35 euro balio du izen-emateak.

Saskibaloiarekin lotutako mota guztietako ariketak eta probak egingo dituzte egunero, 09:30etik 14:30era.

### Kataluniara

Ointxe!-k MIC txapelketan hartuko du parte maiatzaren 18tik 21era Lloret de Mar herrian (Katalunia). Infantil mailako mutilak, kadete mailako mutilak eta neskek eta junior mailako mutilak ariko dira lehiatzen.



Ointxe-Araski taldeko jokariak. ANGEL AYASTUY

## Mondrak futbol campusa egingo du Pazko astean

Apirilaren 23tik 26ra izango da, Mojategin. Lau saio izango dira, 09:30etik 13:00etara —zaintza zerbitzua ere egongo da, 09:00etatik 09:30era, kostu txiki batekin—. Izena emateko, [mondrafutboleskola@gmail.com](mailto:mondrafutboleskola@gmail.com) helbidera mezu bat bidali beharko da, eta dokumentu bat bete —70 euro da—. Futbolaz gain, beste hainbat ekintza ere egingo dituzte.

## Gazte mailako mutilen futbol taldea, Euskal Ligatik gertu

Liga bukatzeko jardunaldi baten faltan, lehenengo postua ziurta du Cristian Levisen taldeak, Aloña Mendiri 3-4 irabazi ostean. Hori horrela, Oartzunen aurka jokatu du Euskal Ligara igotzeko finala, beste multzoko liderraren aurka, alegia. Maiatzaren 12an jokatu dute partidua hori, baina oraindik ez dakite non izango den.

# "Teknika barik ez zoaz inora mendiko eskian"

**AITOR UGARTE** EUSKAL SELEKZIOKO KIDEA

16 urteko aramaioarrak lehen denboraldia izan du modalitate horretan; hasiera-hasieratik lehiarako aukera eman dio selekzioak. Gustura dago esperientziarekin

**Julen Iriondo** ARAMAIO

Espainiako Kopa lehiatu du, "oso jende onarekin"; Kataluniako harrobia nabarmentzen du. Euskal Herriko Kopan ere aritu da, eta emaitzak hobekak izan dira hemen, "politik": bertikaletako txapelketa irabazi du, Linzako bakarkakoa ere bai, eta Kopako sailkapen orokorra bereztat izan da.

**Bukatu da eski denboraldia, baina ez zaude geratzekotan.**

Ez. Maiatzean eta ekainean mendiko lasterketa asko daude, eta pare bat egiteko asmotan nabil. **Mendiko eskian aurten hasi zara lehian, ezta?**

Bai. Aspalditik eskiatzen dut alpetar erara. Mendiko eskia egiten aurten hasi naiz, aitak erakutsita. Lehiatzeko zortea ere eduki dut, eta oso pozik nago. **Selekzioaren deiazen harira etorri da lehiatzeko aukera? Edo bestela ere bazenuen asmoa lehian aritzeko? Izan ere, selekzioarekin jardun duzu; nola sortu zen aukera hori?** Hasiera batean, asmoa zen mendian ibiltzea, Aloña aldean eta. Baina korrika denboraldi ona egin nuen kilometro bertikaletan, eta hori dela-eta deitu zidaten selekzioetik, lehiatzeko, eta asko ikasi ahal izan dut lehiatuz.

**Beraz, korrika ondo zenbiltzala-eta eskirako deitu zizuten?**

Bai. Kasualitatez eduki nuen aukera hautatzailearekin hitz egiteko. Komentatu nion eskiatzen banekiela, eta aukera eman zidaten taldean sartzeko eta kirol honetaz disfrutatzeke.

**Ulertzen dut badirela gaitasun batzuk bi arloetan komunak direnak.**

Hori da. Korrika zein mendiko eskian arlo fisikoak antzera eragiten du; fisikoki prest nengoelakoan hartu ninduten. Baina teknika handia ere behar da eskian, eta hori ikasi dut aurten, teknika barik ez zoazela inora. **Non zauden eta ikasteko zenbat falta zaizun ikusteko balio izango zizun, beraz, aurtengoak.**



Aitor Ugarte, mendiko eskian lehian. GOIENA

## "ORAINDIK LAN HANDIA GERATZEN ZAIT MAILA TXUKUN BATERA IRITSI AHAL IZATEKO"

Bai. Mendiko eskiko lehiak, niretzat, erabat ezezagunak ziren. Euskal Herrian ez dabil jende askorik, baina, Espainia mailan ere lehiatu naizenez, ikusi ahal izan dut jendea badabilela, eta oso ondo prestatuta, gainera. Niri, geratzen zait, oraindik. **Euskal Herrian jende asko ez dabilela diozu; orokorrean edo zuen adinetan?**

Taldean, kadete mailan ni naiz bakarra. Junior mailan badago jende gehiago, baina ez hainbeste. Nafarrek ere badituzte pare bat neska-mutil kadete mailan, baina ez dago jende askorik. Helduagoetan jendea badabil lehian, baina harrobi lana egin behar da gazteekin, eta orain, horretan ari dira lanean. Apirilaren 21ean egingo dituzte 12 eta 20 urte artekoentzako hautaprobak, selekzioarako, hurrengo denboraldirako; jende berria,

gaztea, erakarri nahi dute arduradunek.

**Zuretzako ere bada hautapropa hori?**

Ez, niri esan zidaten aurtengoarekin nahikoa zela.

**Nola izaten ari da ikasketa prozesua? Norbere kontura, entrenatzaileekin, beste batzuekin mendira joanaz, lehiaketetan...?**

Dugun arazoa elurra da. Aurten ez du askorik egin, eta teknika entrenatzeko ez da aukera askorik egon. Egin izan duguna izan da, zapatuan lasterketa edukiz gero, domekan denok batu eta teknika lantzeko ariketa batzuk egin. Jaisterako orduan behar da teknika, baina baita eskien eta larruen aldaketetan-eta ere; eta hori ere landu egin behar da, ze aurten ikasi dut oso garrantzitsua dela aldaketa horiek ondo egitea.

**Igarri duzu bilakaerarik denboraldi hasieratik amaierara?**

Bai. Ez nekien ezer, ia hutsetik hasi nintzen. Egunero ikasten da zerbait: haizea dagoenean nola jokatu, edo ze larru hartu kondizioen arabera... Beti gabil-tza ikasten, baina oraindik lan handia geratzen zait maila txukun batera iristeko.

## Lierni Altuna izango da berriro ere EH Bilduren alkategai

Maiatzaren 26an izango dira udal hauteskundeak, eta, Goienak jakin duenez, gaur egungo alkatea, Lierni Altuna, izango da berriro ere EH Bilduren zere- zereendako lehenengoa. Altunak bi agintaldi daramatza Aramaio-ko udalbatzan, aurrenekoa zinegotzi legez –Ramon Ajuria alkate zela– eta bigarrena, berriz, alkate.



Lierni Altuna. JULEN IRIONDO

## Lagun arteko pilota txapelketaren balorazio baikorra

Lehen aldiz antolatuta dute, eta lan horretan ibili den Jon Herrartek dio hurrengo urtean ere izango dela; agian, aldaketaren batekin. Aurtengoak emandakoarekin, hori bai, gustura; hamasei bikotek hartu dute parte, eta "partidu politikak ikusi dira". Ander Lopezentzat eta Endika Agirrerentzat izan da Iturrieta-ko afaria –hori zen saria–.



Txapelkunak. ARAMAIO PELOTA ELKARTEA



SAN MARTIN ESKOLA / IMANOL SORIANO

## Korrikaren aitzakian, jai giroan

Hainbat ekintza izan dira asteburuan herrian, Korrika zetorrela-eta antolatutakoak. Egubakoitzean, esaterako, Kantuz Bizi izeneko tailerra egin zuten eskolako umeei, Alaiak abesbatzakoekin eta eguneko zentroko kideekin batera. "Hunkigarria" izan zen, eskolako arduradunen esanetan. Arratsaldean, berriz, Korrika Txikia egin zuten.



Errekabarren kalean aparkatutako autoen inguruan zinta jarrita, lanen berri ematen duen oharrarekin. ARETXABALETAKO UDALA

## Asfaltatze lanak Pazko astean hasiko dituzte

Hainbat kaletan egitekoak diren berritze lanak apirilaren 23an hasiko dituztela iragarri dute udal ordezkariak –Araba ibilbidea eta Loramendi, Nafarroa, Bizkaia eta Errekabarren–; era berean, futbol zelai berriaren eraikitze lanak ere hasi dituzte

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Hastear dira asfaltatze lanak. Orain dela hilabete batzuk iragarritako lez, Araba ibilbidea eta Loramendi, Nafarroa, Bizkaia eta Errekabarren kaleak berrituko ditu Udalak. Apirilaren 23an, Pazko astean, hasiko dituzte lanak, eta adierazi dute kasu batzuetan zebra bide berriak eraikiko dituztela, beste batzuetan tokiz aldatu, eta beste kale batzuk asfaltatu bakarrik egin direla.

**Errekabarrendik Portasolera**

Errekabarren kaleari helduko diote lehenengo. Asfaltatu aurretik, baina, zuhaitzak kentzeko lanak egingo dituzte. "Horretarako, kalean dagoeneko jarri dira oharrak autoak aparkalekuan ez uzteko. Zirkulazioa, ahal den neurrian, mantendu egingo da, baina aparkalekuak libre utzi beharko dira derrigorean", adierazi dute.

Errekabarren kalean, asfaltatzeaz gain, ezkerreko aldean

espaloitxiki bat ere egingo dute –Otoratik mojen komentura bitartean dagoen zatian–, kalearen alde bietatik pasa daitezen oinezkoak.

Ondoren, Loramendi, Nafarroa, Bizkaia eta Araba ibilbide inguruko lanei helduko diete: "Portasolen beste moldaketa batzuk egingo dira; zebra bide batzuk altxatu eta tokiz mugitu, esaterako". Dena den, data ez dagoela oraindik zehaztuta adierazi dute, prozesuaren arabera finkatzeko geratu delako, eta kalean jarritako ohar bidez jakinarazi dituzte horiek.

**Futbol zelai berria, hasita**

Kiroldegi aurreko berdegunean, ostera, hasi dituzte dagoeneko

**FUTBOL ZELAI BERRIAREN LANAK HASITA DAUDE KIROLDEGI AURREKO BERDEGUNEAN**

futbol zelai berriaren eraikitze lanak. Kataluniako Sports And Landscape enpresari eman diote horren ardura eta hamasei bat aste beharko dituzte bukatzeko. Proiektuan zehaztutako lez, belar artifiziala izango du, bi ate mugiezin, markagailua, jokalarien aulkiak eta ikusleendako eserlekuak. Bi metroko hesiarekin inguratuta egongo da eta sei metro arteko sarea jarriko diote ateen atzealdean, baloiek ihes ez egiteko.

**Plazako arrapala, maiatzean**

Bestetik, Herriko Plazatik Santa Kurtz kalera igotzeko egingo duten arrapalaren lanak esleitu berri ditu Udalak. Herreria el Campillo SL enpresa izan da deialdira aurkeztu den bakarra, eta horri eman diote ardura, 69.888,91 euroko aurrekontuarekin. Hogeitahiru egun barru, maiatzean, hasiko direla eraikitzen adierazi dute udal ordezkariak, eta hilabete inguruan bukatuko dutela.

## Airearen kalitatea neurtzeko estazioa jarriko dute Markolen

Hilabete eta erdiz egingo dituzte neurketak, eta aurretik egin diren beste batzuetako datuekin alderatu

**M.A. ARETXABALETA**

Eusko Jaurlaritzaren Airearen Kalitatea Artatzeko Sarearen unitate mugikorra jarriko dute Markole inguruan, eta hilabete eta erdi izango dela han iragarri dute udal ordezkariak: "Herriko baldintza atmosferikoei buruz hainbat taldek adierazi duten ardurari erantzutea da helburua, eta, gainera, 2007an eta 2009an egin ziren beste neurketa batzuekin konparaketak egingo dira".

Aurretik egindako neurketek datu positiboak eman zituztela jakinarazi dute, "legeak ezartzen

dituen parametroen barruan". Era berean, Aretxabaletan zuzenean eragiten duten kutsatzaile atmosferiko garrantzitsuenak identifikatu zituzten orduan: ibilgailuen trafikoak izurtzen dituzten gasak. Modu berean, beste hainbat faktore ere aztertuko dira: etxeetako igorpenak, industria jardueretakoak...

Neurketak egingo dituen unitate hori aste honetan bertan jarriko dute eta maiatz bukaera arte egongo da. Adierazi dute azterketaren datuak ezagutzera emango dituztela ondoren.

## GORA ETA BEHERA



OIER ETXEBARRIA

## Ura pilatuta zebra bide berrian



Herritar batek esan du euria egin orduko –joan den astean– putzua agertu zela oraintsu egindako zebra bidean, industrialdean. Dena den, beste toki askotan lanak oso ondo eginda daudela dio.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.

## Erretiratuen Egunerako txartelak salgai apirilaren 23an hasita

Erretiratuen Eguna ospatuko dute maiatzaren 11n, zapatuan. Udalak antolatu du Basotxo erretiratuen elkartearekin elkarlanean. Bazkaltzeko elkartuko dira, beste behin, herriko erretiratuen Ibarra kiroldegian (14:00), eta ondoren, gura beste dantzan egiteko aukera izango dute, AZ Gaubelak DJ talde aretxabaletarrak girotuta.

Ordurako txartelak apirilaren 23an, martitzena, jarriko ditu salgai Udalak, eta maiatzaren 3a bitartean izango dituzte. Horretarako, udaletxeko sarretatik pasatu behar da; hona hemen ordutegia: 10:00-12:00. Prezioa da 15 euro txartel bakoitzeko.

Iaz berreskuratu zuten ospakizun egun hori, hainbat urtetan egin barik egon ondoren, eta harrera beroa egin zieten herriko erretiratuek; 165 bat lagun elkartu ziren.

# Futbolera gerturatzeko saioa, lanean gozatuta

8 eta 12 urte arteko Debagoieneko 38 bat neska elkartu ziren astelehenean Ibarra futbol zelaietan, Arizmendi kirol elkarteak deituta; Real Sociedad Fundazioko entrenatzaileak gidari hartuta futboleko jardun zuten hainbat ariketa ikasi ondoren

**Mirari Altube** ARETXABAETA

Hirugarrenez antolatu du Arizmendi kirol elkarteak emakumezkoen futbol topaketa, UDAREN eta Mondraren laguntzarekin, eta Real Sociedad Fundazioaren gidaritzapean. "Emakumezkoen futbola ezagutzera eman gura diegu halako topaketekin, hainbeste kirolen artean hori ere gertutik ezagut dezaten. Eta Realeko ordezkariak ekarrita beti da erakargarriagoa", adierazi zuen Arizmendi kirol elkartearen kide Julen Peralesek futbol zelaietan.

**Gero eta lagun gehiago**

Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. maila arteko neskatilariak egin zieten ekimenera, eta ia 40 lagun elkartu ziren: "Erantzun ona izan du, eta pozgarria da hori; izan ere, urtero gero eta gehiago datoz", zioen Peralesek. Hori bera berretsi zuen Realeko jokalaririk ohi eta entrenatzaile Aintzane Encinas: "Oso pozik



Entrenamendu saioan astelehenean, Ibarra. AMAIA TXINTXURRETA

hainbeste gaztetxo elkartu izanarekin. Nesken futbolari bultzadaxo bat emateko gaude eta guztiok jarraituko dugu lanean".

Peralesek zioen aldatu egin dela emakumeen futbolaren egoera azken urteotan: "Talde

gehiago daude eta metodoa ere aldatu egin da. Horren bueltan hainbat dabilta lanean gogor, eta eskertzekoa da". Encinas bat etorri zen horrekin, eta lanean jarraitzeko gonbita egin zuten guztiei; betiere, "disfrutatuta".



JONE OJEA

## Ondo pasatzeko egunak

Opor egunetan asper ez daitezkeen aukera zabalak eskaini diete Kultura Sailak eta Gazteria Zerbitzuak gaztetxoek; astronomia tailerrak, esaterako. Atxorrotx gaztelua defendatzeko lanetan ere jardun dute Eskoriatzako eta Aretxabaleko zenbait neska-mutikok. Astelehenean, Atxorrotx bertan hainbat proba gainditu behar izan zituzten eta martitzenean, Eskoriatzan.

### Kiroldegia zabalik eta liburutegia itxita Aste Santuko egunetan

Ibarra kiroldegiko ateak zabalik izango dira Aste Santuan eta Pazko astean, baina ezohiko ordutegia izango du. Apirilaren 18tik 22ra bitartean, goizez bakarrik izango da zabalik: 09:00etatik 14:00etara. Pazko Astea, apirilaren 23tik 27ra bitartean, ostera, goizez 08:30etik 14:00etara eta arratsaldean 16:00etatik 20:00etara.

Liburutegia, ostera, itxita egongo da Aste Santuko jaiegunetan, eta apirilaren 23tik 27ra bitartean zabalik. Ohiko ordutegia izango du, gainera: asteko egunetan, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara; eta zapatuan, goizez bakarrik, 10:00etatik 13:00etara.

### Mikel Reparaz kazetariarekin solasaldia

Udaleko Kultura Sailak gonbidatuta, Mikel Reparaz (Arbizu, 1975) EITBko kazetaria izango da apirilaren 30ean, martitzena, Arkupen (19:00). *Trumpen Amerika* izeneko solasaldia egingo du, eta Ipar Amerikako egonaldian ikusitako eta bizi izandakoen berri emango die elkartutakoek. Eskarmentu handiko kazetaria da nafarra, eta nazioarteko kontuetan aditua; hain zuzen ere, ETBko albistegietako nazioarteko burua izan zen, eta Bruselan eta AEBetan korrespondentsal lanetan jardun du.

Solasaldi sorta abiatu zuen Kultura Sailak martxoan, Jon Sarasuarekin, eta horren baitako bigarrena izango da hau.

## Emakumezkoen futbol topaketako protagonistak



**AINTZANE ENCINAS**  
REALEKO ENTRENATZAILEA

"Reala denboraldi bikaina egiten dabil eta polita da ikustea neskek ere Anoetan joka dezaketela eta finaletan egon daitezkeela. Baina oraindik asko dago egiteko eta egunero egin behar da lan bidea zabaltzeko; gaur elkartu direnei, adibidez. Horiek disfrutatuta egin behar dute ibilbidean, eta gero, ikusiko da".



**OLAIA CALVO**  
LEINTZ ARIZMENDIKO JOKALARIA

"Topaketan laguntzera etorri naiz. Lehen, ez zegoen emakumezko talderik; orain, aukera zabalagoa dago, nahiz eta lan asko egon egiteko. Sarritan, futbola gizonetzkoekin bakarrik lotzen da, eta ez da horrela. Aurrerapauso batzuk eman dira urteotan, baina berdintasunik oraindik ez da lortu".



**MALEN ETA NAHIA**  
TOPAKETAKO GAZTETXOAK

"Ikastera eta ondo pasatzera etorri gara entrenamendu saio honetara, eta gustura ibili gara. Beroketa lanak egin ditugu lehenengo, baina gehien gustatu zaiguna izan da konokin egindakoa: ordenan jarri behar izan ditugu ahal den bizkorren. Taldean ere egin ditugu ariketa batzuk, eta ondo pasatu dugu".

### Kulki taldearekin jolas egiteko aukera hilaren 24an

Kultur kirolak sustatzea helburu duen Kulki talde nafarrak *Industriaren herri kirolak* jolasak eskainiko dizkie neska-mutikoei apirilaren 24an, eguaztana, Udaleko Kultura Sailaren eskutik. Herriko Plazan elkartzeko dei egin diete gaztetxoek, 18:00etan, eta, zalandarrik gabe, arratsalde-pasa atsegina izango dute hainbat jolasi esker.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

**ALTZARIAK**  
**DISEINUA**  
**APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel: 943 79 08 07  
ARETXABAETA



lazo udalekuetan atera zuten talde argazkia. IMANOL BELOKI

## Udaleku irekietarako begiraleak behar dituzte

Uztailaren 4tik 23ra egingo dituzte aurten udaleku irekiak, eta Txirikila elkarteak begirale bila dabil dagoeneko; Tortolis ludotekan (17:00-19:00), kultura etxean (10:00-14:00) eta 'txirikila@gmail.com' helbidean jasoko dituzte curriculumak

### Eneko Azurmendi ESKORIATZA

Urteroko hitzorduari jarraituz, aurten ere udaleku irekiak egingo dituzte Eskoriatzan, Udalak eta Txirikila Aisialdi Elkarteak elkarlanean antolatuta.

Begiraleak behar dituzte, eta hainbat baldintza eta irizpide jarri dituzte begiraleok aukeratzeko. Esaterako, euskaraz ondo hitz egitea ezinbestekotzat jo dute. Horrekin batera, formakuntza bileretara joatea eta curriculumarekin batera tituluak atxikita bidaltzea ere eskatzen dute.

Hain zuzen, curriculumak jasotzerakoan, puntuazio sistema bat hartuko dute kontuan. Begirale titulua edukitzeak bost puntu balioko du; Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) izateak, bi puntu; aisialdiarekin lotura duen zortzi orduko ikastaro bakoitzeko, puntu bat; Irakasletza, Psikologia, Gizarte Hezkuntza edota Pedagogia ikasketak egiten ari izenez gero, puntu bat; aipaturiko ikasketak horiek bukatuta

izanez gero, gradua izanez gero, hiru puntu; sei ordu baino gehiagoko lehen sorospenerako titulua edukiz gero, bi puntu; aurrez Eskoriatzako udaleku irekietan begirale aritutakoa izanez gero, hiru puntu; eta, azkenik, beste herri bateko udaleku irekietan begirale aritutakoa izanez gero, puntu bat. Hori guztia hartuko dute kontuan; hala ere, eskoriatzarrek lehentasuna izango dute aukeraketa egiteko garaian.

### Izen-ematea zabalik dago

Begiraleendako bakarrik ez, haurrentako deialdia ere zabaldu dute dagoeneko, eta maiatzaren 3ra arte egongo da izena emateko aukera. Horretarako bideak hauek izango dira: Tor-

**UDALEKU IREKIETAN  
IZENA EMATEKO EPEA  
MAIATZAREN 3RA  
ARTE EGONGO DA  
ZABALIK**

tolis ludotekan 17:00etatik 19:00etara edo kultura etxean 10:00etatik 14:00etara. Aurten, ez dira ikastetxeetan banatuko izen-emate orriak.

Udaleku irekiak 2007 eta 2015 urte bitartean jaiotako haurrei zuzenduta egongo dira –Haurren Hezkuntzako 3. maila eta Lehen Hezkuntzako 6. maila artekoak–. Uztailaren 4an hasi eta 23ra arte eskainiko dira, goizez 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldez 15:00etatik 17:00etara.

Haur baten izen-ematea 61 euro izango da; birena, 112 euro; eta hirurena, 153 euro.

### Zaintza zerbitzua

Berrikuntza moduan, Txirikilaren eskutik zaintza zerbitzua izango da 08:30etik 10:00ak arte. Plazak mugatuak izango dira eskaintza aurrera eramateko –gutxienez, zortzi haur egon beharko dira eta, asko jota, 35–. Edozein zalantza edo argibide nahi duenak [txirikila@gmail.com](mailto:txirikila@gmail.com) helbidera idatzi dezake.

## Hezkuntzaren Astea egingo dute apirilaren 29tik maiatzaren 3ra

Luis Ezeiza Herri Eskolak askotariko ekintzak antolatu ditu aste horretarako, 'Hezkuntza jasangarria' lelopean

### E.A. ESKORIATZA

Urtero moduan, Hezkuntza Astea egingo dute aurten ere Luis Ezeiza Herri Eskolan, eta gai nagusia hezkuntzaren jasangarritasuna izango da. Apirilaren 29tik maiatzaren 3ra bitartean ospatuko dute.

Lehenengo egunean, apirilaren 29an, *Elkar ezagutzen: kultura musulman* izeneko hitzaldia egingo du Hajar Samadik, 17:15ean.

Maiatzaren 2an, eguna, Liburutegi Eguna egingo dute. Izan ere, askotariko nazionalitateetako familiak daude eskolan; hori dela eta, goizean, gurasoak izango dira protagonista, eta euren hizkuntzetan ipuinak kontatuko dizkiete haurrei: urdueraz, errusieraz, eta abar – unean bertan itzuli egingo dute euskarara–. Gero, liburuak zozketatuko dituzte ikasleen artean. Arratsaldean, berriz, hizkuntza-

rekin lotutako jolasak egingo dituzte eskolan: asmakizunak, txisteak, aho-korapiloak eta bestelakoak. 17:15ean, hitzaldia egingo du Lydia Luque madrildarrak, *Educando en la diversidad* izenburupean, eta *Mandala el koala* liburua aurkeztuko du, bide batez.

Maiatzaren 3an, familien eguna izango da. Arratsaldean, ikasleek hainbat abesti kantatuko dituzte, eta eskolako komunitate osoa gonbidatu dute ekitaldiaz gozatzera. Abestiak, gainera, hainbat hizkuntzatan izango dira. Ondoren, taldeka, jolasak egingo dituzte –ikasleak, gurasoak eta irakasleak, gelaka–. Gero, guztiek elkarrekin, 45 hizkuntzatan den *Thank you* abestia kantatu eta dantzatuko dute. Eguna amaitzeko, Hezkuntza Astearen leloa, *Hezkuntza jasangarria*, hainbat hizkuntzatan jarriko dute patioan.



Luis Ezeiza Herri Eskolakoak Ene Kantak-en. LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA

## Jaitsiera saihesteko kanporaketa jokatu du Eskoriatzak

Saskibaloian, Gipuzkoako Lehenengo Mailari eustea da emakumezkoen senior mailako taldearen helburua, eta, liga erregularra azkenengo postuan amaitu ostean, kanporaketa bat jokatu beharko de Goierri Ay-maren aurka. Lehenengo partidua etxean jokatu du Angel Esperesateren taldeak, maiatzaren 4an, eta bigarren partidua

Urretxun izango da, maiatzaren 11n. Kanporaketa gainditzen badute, mailari eustea lortuko dute.

Liga erregularrean urretxuarren aurkako bi partidua galdu dituzte eskoriatzarrek. Hala ere, mailari eusteko aukerak ikusten ditu Esperesatek. "Kanporaketa lehiatua izango da. Bi partiduetan kontzentrazioa mantentzen badugu, aukera asko izango ditugu irabazteko. Orain, Aste Santua dator, eta ea ez dugun erritmoa galtzen".



Iaz, Atxorrotzeko Gazteluaren Festan herritarrak arku tiroa probatzen. IMANOL BELOKI

## Arku tiro taldea sortuta, herritarrak animatu guran

'Esko-Arkulariak' izeneko taldean hamabi kide daude, oraingoaz, eta asmoa da euren zaletasuna uztartzea

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

*Esko-Arkulariak* izeneko taldea sortu berri dute Eskoriatzan. Kirol horrekiko zaletasuna duten hamabi pertsona batu dira, eta momentu honetan tramiteak egiten ari dira erregistroan alta emateko. Euren asmoa da hainbat egunetan batzea eta gustuko duten zaletasun hori praktikatzeara.

Oskar Escribano taldeko kideak adierazi du aspalditik zutela gogoia elkarte bat eratu eta arku tiroa uztartzeko: "Taldearen helburua arku tiro taldekoak elkartzeara eta gezi batzuk botatzeara

da. Hori horrela, interesa dute nei ere irekita gaude, eta zenbat eta jende gehiago batu, hobeto. Hala, kirol hau ezagutu, probatu, eta praktikan jarri nahi duena gurekin jarri daiteke harremanetan, *Eskoarkulariak@gmail.com* helbidera idatzita".

### Atxorrotxen arrakasta

Iaz egindako Atxorrotzeko Gazteluaren Festan, bi diana jarri zituzten arku tiroa praktikatzeko. Jende dezente pasa zen bertatik probatzera, eta ordutik, buru-belarri aritu dira taldea eratzeko lanetan.

## Olazar Elkarteko 40 erretiratu Ruta del Quijotera joango dira

Bidaia apirilaren 24tik maiatzaren 1era arte izango da eta, besteak beste, ibilaldiak egingo dituzte

**I.B** ESKORIATZA

Olazar Erretiratu Elkarteko 2019ko kultura programazioari eutsiz, astebeteko bidaia izango dute hilaren amaieran. Apirilaren 24tik maiatzaren 1era bitartean Ciudad Realera joango dira, Ruta del Quijotera.

40 lagunek eman dute izena, baina Pedro Hernando elkarteko presidentek adierazi du ez dutela datekin asmatu: "Antolatatu dugun bidaia bat dator Pazko astearekin, eta, horregatik, Olazar Elkarteko kide asko ez dira joango. Batez ere, beste

bidaiaren bat programatuta dute. Hala ere, hainbat animatu dira, eta bidaiaren funtsa bertara joan eta hainbat ibilaldi egitea izango da, leku berriak ezagutzeko".

Maiatzean, bestalde, beste hainbat ekintza izango dituzte elkarte kideek, baina urteroko irteerak ez du hutsik egingo. Hain zuzen ere, maiatzaren 18an Aginaga sagardotegira egingo dute irteera, Tolosako merkaturtik pasa eta Donostian poteoa eginda. Izena emateko azken eguna maiatzaren 9a izango da.

# 'Leintz lotzen' eguna izango da hilaren 28an

'Gatz bidie, Leintz lotzen' egitasmoa kideek, Sendabide Elkarteak, 'Hustu ganbara' herri egitasmoak eta hainbat norbanakok elkarlanean antolatu dute, bidea berreskuratu eta sustatzeko eta VHL sindromea ikertzeko diruz laguntzeko

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Apirilaren 28an, *Leintz lotzen* eguna ospatuko da, *Gatz bidetik sendabidera* lelopean. Hainbat elkarteren indarrak batuz, bailarako herriak eta pertsonak hurbiltzeaz gain, *Gatz bidie* ezagutzera eman eta Sendabide elkarterako finantzazioa lortzea izango du helburu egun horrek.

*Gatz bidie* Eskoriatza eta Gatzaga lotzen dituen PR-100 bideari eman dioten izena da. Gatzaga bailararekin lotzen duen bidea da, eta berreskuratu eta sustatzeko asmoz hainbat ekintza egingo dituztela adierazi dute egitasmoaren aldeko kideek. "Ezagutzeaz bat, bidearekin maitemintzen zara eta behin erabili duenak errepikatu egiten du. Hala, *Gatz bidie*, *Leintz lotzen* ekimeneko kideok, Sendabide elkarteak eta *Hustu ganbara* herri egitasmoa kideek elkarlanean prestatutako jaieguna da. Horiez gain, txistulariek, txalapartariak, musikariek, abeslariak, Gurel Guraso Elkarteko kideak eta norbanakok lagundu dute guztia antolatzen eta ahalbidetzen", adierazi dute *Gatz bidie*, *Leintz lotzen* egitasmo kideek.

### Ibilbide kultural eta solidarioa

09:30ean Aretxabaletako plazatik irteera emango diote hasiera egunari. Eskoriatzara heltzean, tren geltoki zaharrean batuko dira zenbait herritar Gatzagarako bideari ekiteko. Bidean zenbait sorpresa izango dituzte: adarra, bertsoak, txalaparta... 12:00 aldera iritsiko dira Gatzagara, eta plazan, txistulariek emango diete ongiatorria irteeran izan direnei.

Plazan bigarren eskuko gauzen merkaturia egongo da, *Hustu ganbara* taldeak antolatuta, eta bertan lortzen den diru guztia Sendabide elkartearendako izango da. Horrekin batera, frontoian prestatuta izango dituzte mahaiak



Gatz bidie-n dagoen ikurra, atzean Zarimutzeko eliza ikusten dela. IMANOL BELOKI

## BIGARREN ESKUKO AZOKAN BATZEN DEN DIRUA SENDABIDE ELKARTEARENDAKO IZANGO DA

ibilbidea oinez egin dutenek, kantu bazkarirako. "Norberak eraman beharko du jatekoa, eta baita abesteko gogoia ere. Eta ondoren, nahi dutenez, haur, guraso zein aitona-amonentzat, Gurel Guraso Elkarteak antolatutako familia-talde jolasak izango dira. Ea eguraldiak laguntzen duen...".

### 'Hustu ganbara' azoka

*Hustu ganbara* Gatzagan aldiro egiten den bigarren eskuko azoka da. Herritarrek erabiltzen ez dituzten arren erabilgarri dauden arropak, altzariak, jostailuak... jasotzen ditu *Hustu ganbara*-k. Horiek sailkatu eta prezioa jarri ondoren, azokan jartzen dituzte salgai. Helburua da gauzen bizitza luzatzea, berreskuratzea, eta ateratzen den dirua Gatzagan ekintza kulturalak bultzatu eta antolatzeko

erabili ohi izan da. Aurten, berriaz, bailaran sortu berri den Sendabiderendako izango da lortutako diru guztia.

### Dirua, VHL sindromea ikertzeko

"Erabiltzen ez ditugun gauzei irtenbidea emanaz ekintza kultural eta zein solidarioak bultzatzea da *Hustu ganbara* ekimenaren helburua. Eta herritarrek emandakoarekin lortutakoa herritarrei itzultzea. Hori horrela, aurten, VHL sindromearen ikerketari laguntza emateko izango da batzen den dirua".

Sendabide Euskal Herriko *Von Hippel Lindau* sindromearen inguruan eragiteko sortutako elkarte da, gaixotasunaren eraginak jaso dituztenek, familiarrekoek eta lagunek eratu. 2018an sortu zen Sendabide. Alde batetik, gaixotasun arraro hori ezagutzera emateko eta, bestetik, ikerketa proiektuak sustatzeko helburuarekin. VHL sindromea ezaugarri genetikoek sortzen dute, eta VHL izeneko geneak duen mutazioaren ondorioz, gorputzeko hainbat atal tumoreen hazkundera gertatu ohi da.



Aretxabaletan egindako Puntaik Punta jaialdian jo zuen Nogen taldeak, 2018ko ekainean. AITOR AGIRIANO

## Nogen talde gazte eta indartsua Seminarixoan

'Liv til doden' lehen lan luzea eskainiko dute maiatzaren 10ean, 21:00etan; eurekin batera izango da eMe taldea. Maiatzeko programazioa hasiko du, baina, Mireia Gabilondok zuzentzen duen 'Erlauntza' antzezlanak –maiatzaren 4an, 19:00etan–

**Arantzazu Ezkibel Galdos** BERGARA Entzuteko eta ikusteko ekitaldiz beteta dator maiatza. Izen handiko musikariak eta izen handia hartu duten antzezlanak ikusteko aukera egongo da Bergaran.

Seminarixoa aretoa erabiliko dute horiek eskaintzeko. Lehenengo ekitaldia maiatzaren 4an izango da; eta, hain zuzen, Mireia Gabilondo bergararren lan bat eskainiko dute, *Erlauntza*.

### Kepa Errastiren gidoia

Antzezlanak txikitako lagun kuadrilla baten gorabeherak kontatzen ditu. Landetxe batera aste bukaera pasa joango da lagun kuadrilla, euretako baten ezkon aurreko agurra ospatzera. Aste bukaera "eroa" izan behar zena aldrebestu egingo da: trapu zaharrak, esan gabeko gauzak, alkohola...

Oholtzaren gainera aktore ezagunak igoko dira: Itziar Atienza, Sara Cozar, Aitziber Garmendia, Getari Etxegarai, Leire Ruiz eta Naiara Arnedo. Esan

bezala, Mireia Gabilondok zuzendu du antzezlanak, eta ondoan izan du gidoia idatzi duen Kepa Errasti aretxabaletarra. *Dramaturgia berria* laborategiaren barruan sortutako lana da *Erlauntza*. Donostia 2016 ekimenaren barruan sortutako egitasmoa da *Dramaturgia berria*.

Saioa maiatzaren 4an izango da, zapatua, 19:00etan, Seminarixoan. Sarrera 8 euro.

### Nogen, lehen diskoarekin

2016an Danimarkan sortu zen eta ondoren Donostian forma hartu zuen Nogen taldea izango da Seminarixoan maiatzaren 10ean, 21:00etan –8 euro–. Taldearen lehen lan luzea *Liv til doden* –Hil arte bizi– azaroan

**NOGEN TALDEAK 'LIV TIL DODEN' LEHEN LAN LUZEA AURKEZTUKO DU MAIATZAREN 10EKO EMANALDIAN**

ikusitako argia. Ordotik, kontzertuak eskaintzen dabilta donostiarrak: "Uda iritsi aurretik aretoetako kontzertuak eskaintzen gabiltza eta gero hasiko ditugu kontzertu irekiak", dio Alex Irazusta gitarra joleak.

Seminarixoa aretoa ez dutela ezagutzen aitortu du, baina gustura jotzen dutela "bereziak diren aretoetan". *Liv til doden* lanean pop-folk doinuak dira nagusi: "Entzuleak aurkitu behar du bere zentzua, guk ez dugu esango zer esan nahi dugun diskoarekin. Entzuleak hartu eta bere egin dezala", gaineratu du. Taldeak duen *feeling* ona eta lagunarteko giroa kutsatu nahiko luketela gehitu du.

### 'Harian' proiektua

Eñaut Elorrietak *Harian* ikuskizuna eskainiko du maiatzaren 11n, zapatua, 19:00etan, Seminarixoan –8 euro–. *Harian* proiektu berritzailea da; Elorrietak ondoan izango ditu Kaabestri String Ensemble hari boskotea.

## Udal zerbitzuek ordutegi bereziak izango dituzte asteon

Eguenean, barikuan, domekan eta astelehenean, domeketako ordutegia izango du Agorrosinek

### A.E. BERGARA

Aste Santuan eta Pazko astean ordutegi bereziak izango dituzte udal zerbitzuek. Eguenetik –apirilak 18– astelehenera –apirilak 22– itxita egongo dira udal-letxea, Udal Liburutegia eta Udal Artxiboa.

Agorrosin Ekintza Guneko ordutegia, aldiz, honako hau izango da: eguenean, barikuan, domekan eta astelehenean, domeketako ordutegia izango du; hau da: 10:00etatik 13:55era eta 16:00etatik 19:55era. Zapatuko –apirilak 20– ordutegia hau izan-

go da: 09:00etatik 13:55era eta 16:00etatik 19:55era. Laboratorium museoa eta Turismo Bulegoa zabalik egongo dira egunero: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara; domekan –apirilak 21–, 10:00etatik 13:00etara.

Pazko astean, Agorrosinek ohiko ordutegia izango du. Udal Liburutegia 08:30etik 20:30era egongo da zabalik. Pazko Astean, ordea, Bergararren Arreta Zerbitzua 07:30etik 14:30era egongo da zabalik, baina apirilaren 25ean, eguena, ez da arratsalde zabalduko.



JARDUN EUSKARA ELKARTEA

## Esaldi onena, sukaldariarena

Korrikak baldintzatutako Erramu Zapatua bizi izan zuten bergararrek zapatuan; gainera, eguraldiak lagunduta, antolatutako ekintzak giro onean burutu ziren. Jardunek 25. Txorimalo Lehiaketa egin zuen; sei talde parte hartu zuten, 45 bat umek guztira. *Euskal Herriko sukaldariak* taldeak irabazi zuen esaldi lehiaketa, *Euskara ahoan bai zapora goxoa*-rekin.

### Jose Luis Ezeiza margolariaren 'Le bain turc frisoa' erakusketa

Etzi, barikua, zabalduko dute Jose Luis Ezeizaren *Le bain turc frisoa* erakusketa Aroztegin, eta maiatzaren 5era arte egongo da ikusgai. Marrazkiak aurkeztuko ditu Ezeizak, duela urte batzuk egindakoak. "1,14x30 metroko friso luze batera eraman ditut, han antolatuta, paper lodian eta argizari-margoekin", azaldu du marrazkilariak.

**Kabutzia**

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62





EH Bilduren maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako hautagaien zerrenda, Gorka Artola buru dela. EH BILDU

## "Indarrez eta ilusioz" datorren "talde prestatua"

Gorka Artola buru dela, 17 lagunez osatutako hautagaien zerrenda aurkeztu du EH Bilduk: "Lidergoa hartu eta udal honen lan egiteko modua aldatuko duen taldea behar du Bergarak; badugu proiektua eta baditugu pertsonak herri hobe bat eraikitzeko"

### Jokin Bereziartua BERGARA

EH Bilduk apirilaren 12an aurkeztu zuen, Munibe plazan, maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako hautagaien zerrenda. Gorka Artola alkategiarekin batera zerrenda osatuko duten beste hamasei herritarrek zeintzuk izango diren eman zuten aditzera herrikideen aurrean: "Datozen asteetan arloz arlo proiektuak aurkeztuko ditugu baina datozen urteetarako Bergarak merezi duena proiektu proposamen bat baino gehiago da: lidergoa hartu eta udal honen lan egiteko modua aldatuko duen taldea behar du. Talde dinamikoa, prestatua, eraikitzailea, konprometitua,

zintzoa eta Bergara gertutik ezagutzen duena. Indarrez eta ilusioz lanera datorren talde bat osatu dugu eta auzoekin, eragileekin, kirol taldeekin eta bergarar guztiok batera gobernatzeko borondatea duena. Badugu proiektua eta baditugu pertsonak, Bergara hobe bat eraikitzeko prest gaude".

### "Pertsonen beharrak erdigunean"

Duela hilabete batzuk EH Bildu osatzen duten "ehunka herritarrek" euren buruari erronka bat jarri ziotela adierazi zuten: "Bergara grisetik, Bergara bizirako eta koloretzurako bidea egiteko lantalde zein programa sendoa eraikitzea". Hain zuzen ere, lan-

taldeetan eta arloz arlo egin dute lan azken hilabeteotan: euskara, hezkuntza, gazteria, ongizatea, tokiko garapena, hirigintza, auzoak, emakumeak, ekonomia, adineko pertsonak, merkataritza, kultura... Ondoren, programa osatzeko saio ireki bat egin zuten eta hor zehaztu zituzten hurrengo agintaldirako lan ildo nagusiak: "Pertsonen beharrak erdigunean jarriko ditugu: eskubide sozialak, hirugarren adinekoen beharrak, haur eta gazteak, enplegua eta emakumeen ahalduntzea. Horiek izango dira gure lanaren ardatzak eta proiektu propioan zein arloz arlo garatuko ditugun proiektuetan txertatuko dugun ikuspegia".

## EH Bilduren hautagaiak

- Gorka Artola Alberdi** Lanbide Heziketako irakaslea.
- Ainhoa Lete Zabaleta** Kooperatibako langilea.
- Aitor Aranzabal Gallastegi** Hardware diseinatzailea.
- Kristina Markina Igarza** Euskaltegiko irakaslea.
- Juan Luis Gonzalez Lopez** Metaleko langilea.
- Nagore Iñurritegi Irizar** Unibertsitateko irakaslea.
- Ekaitz Aranberri Zezeaga** DBHko irakaslea.
- Itsasne Luarizaristi Orbegozo** Erizaina.
- Juanjo Asula Txurruka** Metaleko langilea.
- Maite Aranzabal Osinalde** Haur Hezkuntzako irakaslea.
- Gorka Ugalde Ugarte** Informatikaria.
- Aran Garitano Aseginolaza** Erizaina.
- Yon Suinaga Landa** Proiektu kudeatzailea Fagor Arrasaten.
- Olatz Gabilondo Ugarte** Almaceneko langilea.
- Alex Arteaga Urrutia** Lehen Hezkuntza graduiko ikaslea.
- Nerea Agirrezabal Gauba** Aseguruetako komertziala.
- Pedro Garitano Laskurain** Erretiratua.

## EHUren udako ikastaroetako bat, Laboratoriumen

Euskal Herriko Unibertsitateak udan ematen dituen ikastaroetako bat Bergaran izango da, Laboratorium museoa: *Ilustracion y educacion STEAM: Bergara, la Bascongada y el Año Internacional de la Tabla Periodica de los Elementos Quimicos*. Uztailearen 11n eta 12an egingo da ikastaroa eta edonork eman dezake izena; antolatzaileek autobusa jarriko dute kanpotik datozenentzat, gainkostu barik, eta 40 matrikulazio beharko dira ikastaroa antola dadin. Maiatzaren 31 baino lehen izena ematen dutenek 60 euro ordaindu beharko dute; online eman daiteke izena, honako webgune honetan: [www.uik.eus](http://www.uik.eus).

## Udaltzainen lan-poltsa osatzeko deialdiaren berri eman du Udalak

Udaltzaingoko agente izateko deialdiko baldintzen artean daude, besteak beste, eskola graduatua, Lehen Mailako Lanbide Heziketa edo baliokide den titulua izatea; gizonak gutxienez 1,65 metroko garaiera eta emakumeek 1,60 metrokoa izatea; euskarako bigarren hizkuntza-eskakizuna izatea; B gidabaimena izatea; eta dolozko delituren bat egiteagatik kondenatua ez egotea. Eskera egin daitezke Bergararren Arreta Zerbitzuan, Bergarako Udaleko erregistro elektronikoa eta posta-bulegoetan. Lanaldia Udalak ezarriko du, zerbitzuaren izaera eta beharrianak aintzat hartuta. Argibide gehiagorako, udaletxera jo: 943 77 91 00.

### TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93

### BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

*Sukalde eta bainu enzimarak*

Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77

### ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09



Aitor Zabaleta  
Tel.: 606 58 18 10  
[www.txipi.com](http://www.txipi.com)

**TXIPI**  
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA



Ezkerretik hasita: T. Larrea, F. Iriondo, G. Legorburu, J.I. Jauregi eta S. Agirreurreta, Urbiako 1974ko kanpaldian. ARROLA

## Naturaren eta herriko kulturaren hazia ereiten

Alderdi pedagogikoa eta kulturala mendiarekin eta Antzuolako inguruarekin uztartzen jarraituko du aurtengo jardueran Arrola Mendizale Elkarteak. Batzar orokorrean hausnartu dute bazkide ugari diren arren, parte hartzea ez dela horren isla

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Batzar orokorra egin berri du Arrolak. Balorazioa egiteaz gain, batzorde berria ere osatu dute: Arantza Sukiak, Aitziber Lizarralde, Ugaitz Iturbek, Josu Agirrek, Iñigo Ramirez de Okaizek, Luis Frankok, Josu Toledok eta Loli Jauregik osatuko dute.

Elkarteak 378 bazkide dituen arren irteeretan ez dela horren isla sumatzen diote: "Balorazioa ona bada ere, irteeretan eta auzo lanetan jendeak parte hartu duelako, ez du islatzen Arrolak duen federatu eta bazkide kopurua, inolaz ere ez. Irteeretan jende asistentzia txikia da", azaldu dute.

Izan ere, sasoi batean mendi elkarteak gizarte eta aisialdi eskakizun bati erantzuten saiatu zirela diote; eta egun, aldiz, gizarte aldaketa nabarmenengatik, belaunaldi berrien nahiz zaharren kirol-mendi-ohituretan aldaketak izan direla gaineratu dute. "Herrian bertan guraso nahiz seme-alaben kiro-

la futboleko oso zentratuta dago; oso zaila da horrekin mendi elkarte batek lehiatzea. Are gehiago, gu bezalako mendi elkarte txikiak, nahiz eta ohikoak ez diren ekintzak egiten saiatu".

### Auzolana eta ingurua ardatz

Herriko natura ondarean jarri gura du Arrolak fokua: "Konturatzaren gara geure hurbileko inguruaz gutxi dakigula; are gutxiago, belaunaldi berriek. Beraz, hilean behin-edo bi astean behin-udalerrian zehar familiei nahiz herritar orori zuzenduriko irteera desberdinak antolatuko ditugu alderdi naturalari eta kulturalari arreta ipiniz. Bide batez, galtzear dauden iturriak, bideak... berres-

**"FAMILIAN EGITEKO NAHIZ HERRITAR ORORI ZUZENDURIKO IRTEERAK EGIN GURA DITUGU"**

kuratu nahi ditugu auzolanean. Aldi berean, gure toponimoak berreskuratzeari ere ekin nahi diogu". Izan ere, asmoa litzateke ingurua seinalatzea Udalak kaleratutako toponimia arauak eta mapa erabiliz.

Inguruko mendi ibilerak gehiago bultzatzea ere gura dute. Eta ume eta helduentzat egun erdiko eta egun osoko ibilbideak sustatu. "Mendi ibileretan alderdi pedagogikoa landu gura dugu parke naturalen, interpretazio zentroen edo museoen bisitak sustatuz. Kontzientziazio, sentsibilizazio kanpainak egin gura ditugu". Dibulgazioa ere landuko dute, eta Mendi Astea baliatuko dute horretarako.

### Gorbeira irteera

Hilaren 28an, Gorbeira eta Mairulegorretako kobazulora egingo du irteera Arrolak. Egun osorako irteera izango da eta linterna eramatea komenigarria dela ohartarazi dute. Irteera 08:00etan da, Torresoroan.


## "Segurtasunik eza" eragin du asteleheneko eurite bortitzak

GI-2632 errepidearen tarte bat pare bat orduz itxi zuen Ertzaintzak, astelehenean izandako ur-jasaren ondorioz

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Astelehen arratsaldean izandako euri-jasaren ondorioz, herriko hainbat gunetan urak gainezka egin zuen. Kalebarrenean, esaterako, estolderiak gainezka egin zuen. Torresoroa atzealdeko bolatokia ere urez bete zen. "Ura bi gunetatik irten zen: AHT ingurutik eta Supide ingurutik. Hilerritik behera ere ura eta lokatza etorri zen. Kalebarrenean estolderia ataskatu egin zen, eta kalea lokatze. Euritea laburra izan zen, eta estolderia libratu egin zen. Segurtasunik ezaren sententzia daukagu", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak.

Irudi ikusgarrienak, aldiz, GI-2632 errepidean jazo ziren, errepidea lokatzez eta urez estalita geratu zen eta. Ondorioz, Ertzaintzak arratsaldeko seiak bueltan errepidea pare bat orduz itxita izan zuen.



GI-2632 errepidea. GOIENA

### Irtenbidea bilatzeko, batzarra

Udala autobideko teknikariek eta ordezkari politikoeekin batuko da irtenbidea bilatzeko. "Ura daraman hoditeria ondo aztertzeke eskatuko dugu, ez dugu gura-eta behin betiko segurtasunik ezean bizi izatea".



IMANOL SORIANO

## Ahozkotasuna sustatu dute

Ahotik bihotzera ipuin maratoiak Antzuolako haurrak, gurasoak eta helduagoak ere erakarri zituen joan zen domekan. Eguerdian, hainbat ipuin kontalariren saioak egin zituzten Zurrategiko plazan, eta herritarrek gustura entzun zituzten eta indartsu txalotu. Iñaki Matak eman zion, baina, hasiera ekimenari, *Welcome!* ikuskizunarekin herritarrek erakarrita.



Ur hustuketa lanek agerian utzitako bide zahar bat, Aixolan. L.Z.L.

# Aixolako bide zaharrak, une batez agerian berriz

Egunotan, nabarmen aldatuta dago paisaia Aixolan. Zebra-muskuiluaren hedapena neurtzeko egindako hustuketa lanek zenbait bide eta horma zati azaleratu dituzte. Auzotarrek, dena den, oraindik ere sakonera handia dagoela ziurtatzen dute

## Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Abenduaren 31n, 37 urte beteko dira Aixola urtegiko lanak amaitu zirela. Ordutik, urpean daude auzoko hainbat etxe, eta elgetar askok argazkien edo auzotar nagusienei entzundakoen bitartez bakarrik izan dute horien berri. Hala, ur maila jaisteko lanek, orain, zenbait bide eta horma zahar utzi dituzte agerian.

Aurreko astelehenean ekin zioten hustuketari eta astebeteko epean dezente egin du behera ur mailak. Jose Mari Zubierrementeria Aixolako Beko Errota etxeko semea da, eta sarri ibiltzen da inguruan. "Oso gutxi ikusten da oraindik, oso gutxi. Askoz ere sakonera handiago dago", azaltzen du. Gogoan du egunotakoa baino ur maila txikiagoa

izan dela urtegiaren behin baino gehiagotan. "Sikateak egon ziren urtegia bete eta lasterrera, eta Ola-Zar errotako aztarnak ere agerian gelditu ziren orduan. Baina hori oso behera dago oraindik". Azaltzen du auzoko bide zatiak direla agertu direnak. "Erreka ondotik bidea zegoen eta baita ere Eibarrera, Ermura, Elgetara, Kanpanzar aldera..."

## Urtegiko horma ingurua ere bistan

Urtegiko horma nagusian da bereziki agerikoa egunotan emandako ur mailaren jaitsiera. Zubierrementeriak dio ez dela denbora asko ur maila gaur egungo neurrian egon dela. "Ur isuriak zeuden nonbait, eta konponketa lanak egiteko hustu zuten urtegia. Hilabete inguru egon zen ur maila jaitsita, hurrengo euria egin eta berriz bete zen arte".



Urtegiko euste-hormaren inguruan gaur egun dagoen ur maila. L.Z.L.



Elgetako EH Bilduk astelehenean egindako batzarreko argazkia. ELGETAKO EH BLDU

## Iraitz Lazkano izango da EH Bilduren alkategaia Elgetan

Elias Castro sozialista da, oraingoz, baieztatuta dagoen beste hautagaia, EAJk ez baitu iragarpenik egin

### L.Z.L. ELGETA

Elgetako EH Bilduk astelehenean egindako batzarrean, Iraitz Lazkano Garitaonandia izendatu zuten EH Bilduko alkategai maiatzeko udal hauteskunderako. 30 bat lagun batzartu ziren zerrendaburua erabakitzeke, eta amaitutakoan jakinarazi zuten: "Aho batez onartuta, Iraitz Lazkano izango da Elgetako EH Bilduren alkategaia".

Lazkano (Elgeta, 1987) Elgetako alkatea da amaitzear den agintaldi honetan, eta bigarren udal hauteskundeak izango ditu zerrendaburu.

### Bi alkategai, oraingoz

Alderdi sozialistako Elias Castro da, oraingoz, maiatzeko udal hauteskunderarako ezagutzera eman duten beste alkategaia Elgetarako. Alderdi Sozialistak martxoaren 20an eman zuen bere hautagaitzaren berri.

Alkategaien izendapena esamesa iturri izaten ari da, aurten, Elgetan. Asteon argitu da EH Bilduk alkategaia errepikatzeke erabakia hartu duela, azkenean.

Elgetako alderdi jeltzaleak badihardu hautagaitza aurkezteko lanean. Ez du, oraingoz, iragarpenik egin.

## Memoria jardunaldien azken bi hitzorduak hurrengo astean

Hurrengo egunean, hilak 25, izango da memoria jardunaldien baitan antolatutako bigarren hitzaldia, Elgetan. Berangoko burdin hesiaren museoko Aitor Miñambres izango da herrian, eta *Euzkadiko gudarostea eta Molaren eraso* izenburua duen hitzaldia egingo du, udaletxean, 19:00etan. Bilbo defendatzeko eraiki zuen burdin hesia lehenengo Eusko Jaurlaritzak. Zein ezaugarri zituen eta zelako garrantzia izan zuen azalduko du Miñambresek.

Bestalde, apirilaren 28rako deitu dute erresistenteei eskainitako ekitaldia. Lore eskaintza egiteko batuko dira interesatuak, 11:00etan, *Intxortako atea*-n.

## OHARRAK

### Frontenis txapelketa

Bihar da frontenis txapelketan izena emateko azken eguna. Partidak maiatzean hasiko dira.

### Aberri Eguna

Domekan, 12:00etan, Aberri Eguneko ekitaldia egingo dute Herriar Batasuneko kideek Mendizaleen Plazan.

### Enduro martxa

Piñukoku taldeak enduro martxa antolatu du hilaren 27rako. Martxa 09:00etan hasiko da, eta izen-ematea 08:00etan zabalduko dute.

### Herrixa Dantzan

Christian Pacher etorriko da hilaren 28an. Ikus 33. orria.



Nerea Zubia, Mikel Biain, Izaro Elorza eta Xabier Igartua, astelehenean, EH Bilgunean. T.M.

## "Zorrotz eta eraginkor" aritu dela dio EH Bilduk

Azken agintaldiaren balorazioa egin du EH Bilduk. Egindakoak balioan jarrita etorkizunari "baikor eta irribarretsu" begiratzen dion herria dela Oñati esan du Mikel Biain alkateak, eta 2011n "udalgintza estilo berri bat" ekarri zutela gaineratu

### Oihana Elortza OÑATI

Azken lau urteotako agintaldiaren balorazioa egin du EH Bilduk. Egindakoak balioan jarrita etorkizunari "baikor eta irribarretsu" begiratzen dion herria dela Oñati esan du Mikel Biain alkateak. Harekin batera izan dira Nerea Zubia zinegotzia eta maiatzaren 26ko udal hauteskundeetako zerrendako kide diren Izaro Elorza eta Xabier Igartua.

### Udalaren zorra

EH Bilduk udalgintza estilo berri bat ekarri zuela 2011n adierazi du Mikel Biainek: "Eta aurreko lau urteetan ereindako hazia loratzen aritu gara azken agintaldian ere".

Aurreko agintaldiko esperientziatik ikasita erronka, proiektu eta egoera berriei erantzun dietela adierazi du: "Zorrotz eta eraginkor jokatu dugu Udalaren kudeaketan. Jendearengandik hurbil, ahalik eta gehienetan jendearekin batera". Hala, ekonomikoki kaudimendun Udala

dela gaineratu du: "Une honetan, zorra ia hutsean dago eta kiroldegiaren lehen faseko proiekturako 4,7 milioi euroko zorpetzea aurreikusten dugu". Eta aipatu du egoera hori erakusten duela 2018ko diruzaintza gerakina 3,4 milioi eurokoa izateak. Herriarren "beharrei eta kezkei erantzun" diela gaineratu du Biainek, hainbat proiektu aipatuta: kiroldegiaren eraberritzea, aisialdirako espazio berriak edo auzoen eraberritzeak, esaterako.

### Egiteko modua eta balioak

Egiteko modu jakin bat izan dutela ere esan du alkateak, "balio eta ideia zehatz batzuekin", eta horren eredu batzuk eman gura izan ditu: kale garbiketaren

**2018KO LIKIDAZIOA  
3,4 MILIOIKOA  
IZANDA, ZUBIKOAKO  
ZORPETZEA 4,7KOA  
AURREIKUSTEN DU**

publikazioa, Eltzia, eskola kirolaren eredu berria... Politika feministak zentraltasuna hartu duela Udalaren jardunean esan zuen asteleheneko agerraldian: "Horren baitan, emakumeak ahalduz egindako lana nabarmena da: Berdintasun Departamentuaren sorrera, Jabetze Eskola, Selma Huxley Barkham beka, Emakume Kontseiluaren sorrera... Eta nola ez, hau guztia eraginkortasunez bideratu ahal izateko departamentu propio bat sortu izana".

### Aurrera begira

Oraindik "lan egiteko asko" egon arren "herri are eta kohesionatuagoa" egiten ari direla aipatu du Biainek: "Kultura desberdinetako jendea elkarrekin hurbilago bizi dadin ahaleginean, gazteak lehenago emantzipatzeko urratsak egiten...". EH Bilduko kideek esan zuten "Oñati, dabilen herria", etorkizunari baikor eta irribarretsu begiratzen dion herria dela gaur egun.

## Euskaraz ikasteko gonbidapena jasoko dute turistek egunotan

Aste Santuko eskaintza prest dute Oñatiko turismo zerbitzuek eta ostatuak gertu daude bisitariak hartzeko

### O.E. OÑATI

Bisitariak hartzeko prest egoten da herria beti, baina datozen opor egunei begira eskaintza indartu dute herriko turismo zerbitzuek. "Arrikruz, esaterako, egunero egongo da zabalik. Turismo Bulegoan bisita bereziak egingo dira herriko altxorak erakusteko eta Txokolaiteixiak ere zabalik izango ditu ateak. Eta gure eskaintzari gehitu behar zaio herriko ostatuak eskaintzen dutena. Kategoria ezberdinetakoak daude herrian, izan ostatu, aterpetxe edo autokarabana-

gune, esaterako. Hori oso aberasgarria da", adierazi du Ikerne Altubek, Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziako arduradunak. Altubek nabarmendu du Arrikruzten duela bi urtekoak baino datu hobek jaso dituztela urteko lehen hiruhilekoan, "lehoiak erakarrira".

Horrez gain, datozen egunetan Oñatira datozen bisitariak euskarazko hitz batzuk ikasteko gonbidapena jasoko dute; Turismo Bulegoan arbela jarri dute eguneroko hitz batzuen itzulpenekin.



NIRE USTEZ

MAILEN SANTOS

## Korri!

Hunkigarria da hamalau egunez etenik gabe jende multzo bat korrika ari dela pentsatzea. Are hunkigarriagoa da euskararen alde korrika egitea, ekimenera batzea. Benetan pozgarria da, egun gutxi batzuek bada ere, euskarari zenbat jende lotzen zaion ikustea. Pausoz pauso gelditu barik egin ditugu kilometroak, aurrera egin dugu guztiok batera, euskararen alde, nahiz eta badakigun bi urtean behin metro/kilometro batzuk korrika egiteak ez diola euskarari bultzada nahikorik ematen. Baina dagoeneko amaitu da. Akabo Korrika. Akabo tabernetan Fermin Muguruza, Mad Muasel eta La Furia. Eta, neurri handi batean, akabo aldarrikapenak. Euskaraldiak zalantza zuen hamaika egunetatik kanpo ere *Ahobizi* eta *Belarriprest* izango ote ginen. Eta Korrika ere beldur da orain; ez daki bi urte barrura arte euskarak beste bultzada handirik izango ote duen.

Azken hilabeteetan asko aurreratu dugula sinetsita gaude, baina beste hainbeste –edo gehiago– egiteke dugu oraindik. Ez dezagun datorren Euskaraldia edo Korrikara arte itxaron, eta has gaitezen euskararen alde lan egiten! Korri!

## Txaloka ludotekak jolasak eroango ditu Foruen plazara

Hiru egun hauetan bezala, datorren astean ere jolasak Foruen plazara eroango ditu Txaloka ludotekak. Apirilaren 23tik 26ra izango da, 10:30etik 13:30era bitartean, eta ipuinen tailerra, jolas erraldoiak edo zirku tailerra egingo dituzte, besteak beste. Gaur, eguaztena, arratsaldean, landareak ontzietan sartu eta poteak apainduko dituzte.

## Irteerak antolatu dituzten gaztelekuan datozen egunetarako

Kuboko eta Topalekuko erabiltzaileendako irteerak antolatu dituzte datorren asteke egunetarako. Urbiara, Gatzagako Gatz Museora, Otxandioko Hontza Extreme gunera, Lekeitiora eta bidegorrian bizikletan joateko planak egin dituzte egun eta adin tarte ezberdinetarako. Aukera guztietarako, izena aurrez eman behar da gaztelekuan.

# Bigarrenenez jantzi du txapela Andoni Goitiak

"Sentsazio onekin" eta "lasai" egin zuen bertsoan Andoni Goitiak "maila oso polita" egon den Txinparta Bertsolari Txapelketako finalean. Duela bi urte zendu zen Tiago Gonçalves izan zuen gogoan agurrean eta txalo zaparrada luzea ekarri zuen horrek

## Oihana Elortza OÑATI

"Sentsazio onak izan ditut saio osoan zehar, lasai nengoen oso. Behetik gora joan naiz, eta gustura nago egindako saioarekin. Besteek ere lan ona egin dute, eta saioaren maila nahiko polita izan da", esan zuen Andoni Goitiak txapela buruan zuela, eta gaineratu: "Gehien gozatu ditudan lanak bakarkakoak izan dira. Zortziko txikian ere berotu dugu jendea, baina, txapelketa gehienetan bezala, bakarkakoetan izan da momentu gorena: bai hasierakoan, bai kartzelakoan".

## Txalo zaparrada luzea

Txapelketari dagokionez, pozik dago txapelduna: "Uste dut maila oso polita egon dela txapelketa osoan zehar. Hasieran, beldur apur bat ere bageneukan, akaso zortzi bertsolari izanda saioak luze joango zirelako. Baina saioak entzungarriak izan dira, jendeak asko gozatu du eta gaurkoa izan da momentu go-

rena: finala polita, jendea gustura eta neu ere bai".

Mirari Sagarzazuk aurkeztu zuen finala, eta Egoitz Atxaga ibili zen kasu batzuetan herri-tarrek proposatutakoak izan ziren gaiak bertsolarietara luzatzen. Finalista guztiek lan ederra egin arren, Andoni Goitia eta Joseba Lasagabaster iritsi ziren buruz burukora. Eta azken txanpan, Andoni Goitia izan zen nagusi. Oñatiko bertso eskolaren sortzaileetako batek, Xabier San Miguelek, jarri zion txapela, eta irabazleak, bere agurreko bertsoan, orain bi urte zendu zen Tiago Gonçalves izan zuen gogoan. Gaztelekuan batu ziren guztiak hunkitu zituen agurreko bertsoak, Gonçalvesen izena

## AURREKO BI FINALERDIETAN BEZALA, BERTSOZALE MORDOA ELKARTU ZEN FINALEKO SAIOAN

entzutean, batez ere. Tiago izena entzun orduko hasi ziren txaloka oholtza gainean zein behean zeuden guztiak. Txalo zaparrada luzea izan zen.

## Bigarrenenez txapeldun

Bertsozale mordoak elkartu ziren zapatu arratsaldean Oñatiko gaztelekuan Txinparta Bertsolari Txapelketako finala zuzenean jarraitzeko. Aurreko bi finalerdietatik sailkatutako sei bertsolari ibili ziren nor baino nor gehiago: Andoni Goitia, Joseba Lasagabaster, Urko Egaña, Urko Arregi, Egoitz Aizpuru eta Beñat Alberdi.

Guztira, herriko hamasei bertsolarik hartu dute parte aurtengo txapelketan eta maila handiko txapelketa izan dela frogatu dute epaile lanetan ibili direnek ere.

Herriko azken bertsolari txapelketa ere Goitiak irabazi zuen, 2014an, eta hark izango du buruan, hurrengo txapelketa antolatzen den arte.

## Mondrari irabaztea da Aloña Mendiren hurrengo helburua

Azken bi partidak derrigor irabazi behar ditu Endika Ruizen taldeak lehen bi postuetako batean sailkatzeko

## O.E. OÑATI

Lehiakorrek izango dira hurrengo bi partiduetan Endika Ruizek zuzentzen duen futbol talderendako. Igoera du jokoan taldeak eta hori lortzeko derrigorra du gelditzen diren bi partidu horiek irabaztea.

## Entrenamenduak

Arrasateko Mondra taldearen eta Zumarragako Urolaren kontra jokatu behar dituzte gelditzen zaizkien bi norgehiagokak. "Biak irabazi behar ditugu, baina orain helburua da Mondrari irabaztea. Ea posible den. Egia da tartean oporrak daudela, eta, bi asteko atsedena izanda, hasierak zailak izaten dira, batzuetan, baina irabaztera joango gara Mojategira", adierazi du Endika Ruiz entrenatzaileak.

Opor egun hauetan, baina, ez dira erabat geldi egongo Aloña



Azkoagainen. GOIENA

Mendiko jokalaria. Datorren astean, bi egunetan dute entrenamendua, martitzenean eta eguenean, 19:00etan.

Mondraren kontrakoaren ostean, Urola gainditzea izango da hurrengoa; ahal dela, bi gol edo gehiagoko errentarekin.

## Ez da girorik faltako beteranoen kopako eta ligako finaletan

Hileko azken zapatuan, apirilak 27, jokatu dira beteranoen txapelketako finalak. 16:00etan izango da lehen finala: Sasquatch eta Larraña taldeek kopa lehiatuko dute. 18:00etan, ligako iragazle izateko aterako dira futbol zelaira Mazedonia eta Albok taldeak. Aurrekoetan bezala, aurtengo finaletan ere ez da girorik faltako Azkoagainen.

## Zubikoa kiroldegiko ikastaroetan aldaketak daude

Zubikoa kiroldegia itxita egongo da eguenean, egubakoitzean eta astelehenean. Ikastaroetan ere aldaketak izango dira. Esaterako, ez da jardun eta ikastarorik izango ur ekintzetan eta igeriketa zerbitzuan apirilaren 18tik 28ra arte, biak barne. Gune lehorreko ikastaroak izango dira Pazko astean, baina ordutegietan aldaketak daude.

## Galiziako bi abesbatza eta Ganbara Txiki, elkarrekin kantuan

Ponteareas (Pontevedra, Galizia) hiriko Obradoiro Vocal eta Cantemos abesbatzek emanaldia egingo dute gaur Oñatin. Bertako Ganbara Txiki abesbatzak gonbidatuta etorri dira eta hiru abesbatzek batera antolatutako kontzertua eskainiko dute. Santa Ana aretoan izango da emanaldia gaur, eguaztena, 19:00etan. Sarrera hiru euro da.

## Lenao taldeak gaztetxean amaituko du bira, hilaren 28an

Lenao talde oñatiarrak Antixena gaztetxean joko du hilaren 28an, domeka. Gaztetxeko *matinee* kontzertua izango da eta, ohi denez, 12:30ean hasiko da. Taldearen azken zuzenekoak izango da, oraingoz. Bost euro izango da sarrera. Asteburu horretan, egubakoitzean, beste hiru taldek joko dute gaztetxean: Holy Txalal, Anaik eta Damak.



Urko Egaña, Egoitz Aizpuru, Joseba Lasagabaster, Jabier San Migel, Andoni Goitia, Urko Arregi eta Beñat Alberdi. I.S.

# Kilometro bertikala eta Aloñako Igoera, gertu

**MENDI LASTERKETA** Maiatzeko lehen asteburuan, Buetraitzeko eta Aloñako tontorrek erabateko protagonismoa hartuko dute, bi lasterketa antolatuko dituzte-eta bertan. Nobedade asko dakartza 15. edizioak; tartean, segurtasunean aurrerapausoa

**Xabier Urzelai OÑATI**

Oñatiren txanda da orain. Arrasate-Udalatzek utzitako zaporen erreleboa hartuko dute Oñatin, Buetraitzeko kilometro bertikalarekin eta Aloñako Igoerarekin. Hala, bi lasterketa horien aurkezpenean, antolatzaileek bi ildo nagusi azpimarratu zituzten: batetik, korrikalarien segurtasuna; eta bestetik, ingurugiroaren zaintza.

**Suhiltzaileen laguntzarekin**

Hori horrela, aurtengo edizioko berritasuna izango da Gurutze Gorriaz gain Gipuzkoako suhiltzaileak egongo direla Aloñako Igoerako ibilbidea zaintzen. Buetraitzen "suhiltzaile parkea" jarriko dute: lau suhiltzaile izango dira lanean –boluntarioez gain– eta soka finkoa jarriko dute. "Gure lana ez da bakarrik erreskatea, gure lana da prebentzioa. Horregatik, soka finkoa jarriko dugu Buetraitzeko gailurrerian", adierazi zuen aurkezpenean Sergio Maiztegi suhiltzaileak.

**Buetraitzeko igoera bertikala**

Egubakoitzean, maiatzak 3, Buetraitzeko igoera bertikalaren hirugarren edizioa egingo dute: "Kronoigoera izango da; lasterkariak banaka irtengo dira, bata bestarekiko tartetxo batekin". Hain zuzen, Iñigo Lariz, Xabi Lete, Montse Bazquez eta Ainhoa Lendinez izango dira lasterketa irabazteko faboritoetako batzuk. 101 lasterkari izango dira guztira; horietatik, 9 emakume; eta 58 debagoiendar.

Korrikalariak zapatua izango dute errekupeatzeko, domekan 370 lagun batuko dira-eta Oñatiko plazan. Eta hor, Oihane Azkorbebeitia, Nerea Amilia, Saioa Arkonada, Walter Becerra, Iñigo Olaberria eta Iban Letamendi dira gertutik jarraitu beharreko korrikalariak, aurrean ibiliko dira eta.



Antolatzaileak, laguntzaileak eta babesleak, aurkezpenean. A.EZKIBEL

## KILOMETRO BERTIKALA EGIN ETA ATLETEK ZAPATUA IZANGO DUTE ATSEDEN HARTZEKO

### Lasterketak datutan

#### Buetraitzeko III. kilometro bertikala

- Maiatzaren 3an.
- Hasiera, 22:00etan, Bellotzako zubian.
- 2,7 kilometroko lasterketa, 727 metroko desnibelarekin.

#### Aloñako 15. Igoera

- Maiatzaren 5ean (09:00etan plazan).
- 370 korrikalari irteera puntuan. Ibarrekoak, 163.
- Gazteek Belarren hasiko dute proba (16 km).
- 22,6 kilometro eta 1.898 metroko desnibela.

## Iñigo Guridi omenduko dute

Duela gutxi hil den Iñigo Guridi gogoan izan nahi dute Aloñako Igoerako antolatzaileek: "15 urte hauetan Gurutze Gorriarekin ibili da korrikalariak laguntzen; eta anekdota txiki bat dugu harekin: Buetraitzeko igoera bertikalako lehen edizioan behe-lainoa sartu zen eta galduta ibili ginen antolatzaileok. Iñigo izan zen gu laguntzera etorri zena; hari esker iritsi ginen tontorrera", azaldu zuen Arejolaleibak. Hala, edizio guztietan izan duen prestutasunagatik omenduko dute. Eta, Guridi gogoan, sari berezi bat jarriko dute: "Buetraitzetik pasako diren lehenengo korrikalariak 100 euroko saria jasoko dute".

## Debagoienak ordezkaritza izango du Europako Txapelketan

**GOITIBEHERAK** Asteburuan Legazpin egingo duten nazioarteko proban 84 pilotu batuko dira

**X.U. OÑATI**

Aztiriatik Legazpira doan maldan egingo dute, asteburuan, Europako Txapelketarako puntuagarria den lasterketa. Eta nazioartetik etorriko diren goitibeheren artean egongo dira Oñatiko Ioritz Aranguren eta Gotzon Aranguren aita-emeak, Ion Madina eta Danel Gereta, Unai Biain eta Adrian Perez eta Joseba Igartua. Eta, Aretxabaleto Aitor Perez ere irteera puntuan izango da: "Guk, normalean, ez dugu nazioarteko proba horietan parte hartzen. Euskal Liga barruan hartzen dugu esku, baina, nazioarteko lasterketa bat horren gertu da goela aprobetxatuta eta gure goitibeherak baldintza guztiak betetzen dituztenez, animatu egin gara", adierazi du Gotzon Aranguren.

Hala, puntako goitibeherekin etorriko diren 84 bikote izango

dira nazioarteko lasterketan: "Gureak etxean egindako ibilgailuak dira. Abiadura handia hartzen dugu, baina asteburuan, puntako material arinekin eta teknologia handiarekin egindako goitibeherak batuko dira Legazpin".

**Pneumatika GX kategorian**

Hori da Oñatikoen kategoria, pneumatika GX: "Gure goitibeherak Euskal Ligako araudia betetzen dute neurriei, segurtasunari eta pisuari dagokienez, eta araudi hori Europako Txapelketakoan oinarrituta dago; horrenbestez, ez dugu arazorik. Guk egindako lanak ez du Europako Txapelketarako balioko, baina eurekin izango gara irteera puntuan".

Italiako, Suitzako, Belgikako eta Frantziako pilotuak izango dira, eta Kataluniatik ere pilotu asko etorriko dira.



Aranguren aita-eme oñatiarrak, aldapa beheara. GOTZON ARANGUREN

**MENDIKO BIZIKLETA**

### Hilaren 27an enduro martxa Elgetan

Mendiko bizikleta martxa egingo dute apirilaren 27an Elgetan (09:00, plazan), baina antolatzaileek argitu dute endurora bideratutako martxa izango dela. Hau da, bizikleta egokiak eta bizikleta gaineko teknika landua daukatenendako irteera izango da. 25 kilometroko ibilbidea prestatu dute, hiruzpalau ordu-tan egitekoa.

### ESKUBALOIA Fagor Industrialek amaitu du denboraldia

Zarautzen jokatu zuen zapatu arratsaldean Fagor Industrialek igoera faseko lehen partidua, finalerdia, Txikipot Zarautzen kontra, eta 19-15 galdu zuen. Oñatiko zale asko egon ziren harmailetan, eta detaile txikiak erabaki zuten norgehiagoka. Hala, ezin izan ziren domekako finalerako sailkatu, eta amaitutzat eman dute denboraldia.



Martin Perez, gainontzeko taldekideekin batera, entrenamendu saio batean, Gasteizen. X.U.

# Martin Perez: "Promozio partiduetan mailari eustea lortu behar dugu"

**SASKIBALOIA** Fundacion Grupo Norterren kontra ligako azken partidua 70-68 galdu eta gero, Zuzenak taldeak azken-aurreko postuan amaitu du liga, eta promozioa jokatu du. "Burgos edo Ferrol izango dira kontrarioak", dio eskoriatzarrak

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Eguena da, eta, astean hirutan egiten duen moduan, Gasteizko Zuzenak taldearekin entrenamendu saioa du Martin Perezek. Normalean, aitak, Miguelek, eramaten du Gasteizera, eta, entrenamendua asko luzatzen denez, bi joan-etorri egiten ditu: "Lehen, Gasteizen geratzen nintzen, baina 19:00etatik 22:00etara entrenatzen dira, astean hirutan, denbora luzea da han gora begira egoteko", dio aitak, umorez. Gainera, Eskoriatzara itzulita, badu zeregina: "Lehen, txakurra paseatzeko aprobetxatzen nuen, baina berriki hil zaigu. Dena dela, fruta denda itxi eta afaria erdi prestatuta uzten dut, osterara ere Martin jasotzera Gasteizera igo aurretik. Egia esan, gustura egiten dudana lana da, jakinda, gainera, Martini saskibaloiak zeekarpen egiten dion".


Semeak, Martinek, badu gida-baimena eskuratzeko asmoa, baina, saiakera egin zuenean, azterketa teorikoan lau akats egin eta, oraingoz, aparkatuta dauka gaia: "Gainera, Eskoriatzako autoeskolan badute auto egokitua, eta hori abantaila da. Hala ere... behin ikasturtea hasita, saskibaloiarekin eta ikasketekin, ez dut astirik [Aretxabaletan dihardu Ikus-entzunezko Komunikazio gradua ikasten]".

Eskoriatzako saskibaloia jokalariek elitean jokatzen du, gurpil aulkiko Espainiako liga gorenean. Liga zorrotza da; iaz

**LIGA AZKEN-AURREKO POSTUAN AMAITZEAK PROMOTZIOA JOKATZEKO AUKERA EMANGO DIE**

igo ziren mailaz, eta kategoriari eusteko helburuarekin bi jokalariek profesional fitxatu dituzte: "Eta bi jokalariek horiek saskibaloitik bizi dira, baina ligan orokorrean jokalariek asko daude horrela. Uste dut gu gara, bi jokalariek horietatik aparte, ezer kobratzen ez dugun bakarrak".

Hori horrela, maila profesionalean jokatzeak dedikazio handia dakar, baita gurpil saskibaloiko ligan ere. Asteburuan amaitu dute liga, eta saillapenean Casa Murcia Getaferen aurretik geratu dira arabarrak. Hori izan da azken hilabeteotan izan duten helburua, postu horri eustea, zuzenean kategorian galdu beharrean promozioa jokatzeak aukera emango die eta horrek: "Seguruenik, maiatzaren 11ko eta 12ko asteburuan jokatuko dugu promozio fase hori, eta



Martin Perez, gurpil aulkiko gurpilak puzten. GOIENA

## Erraztasunak, ahalik eta gutxien

Miguel Perezek nabarmendu duenez, Zuzenak taldeko jokalariek egunerokoan ahalik eta gutxien laguntzeko eskatzen die klubak: "Partiduetako aulkia Martinek eramaten du. Gazteak direnetik erakusten diete euren kabuz moldatzen".

oraindik ez dago erabakita, baina Burgos edo Ferrol izango ditugu aurrean. Hil edo biziko fasea izango da hori guretako, baina badugu astia fase hori ondo prestatzeko".

### Talde profesionalen moduan

Zuzenak Vital Fundazioak Al-mudena Cid kiroldegia erabiltzen du, eta beste edozein kirol talde profesionalak izan ditzakeen baliabideak dituzte eskura: bideo gela, gimnasioa –beste erabiltzaile batzuekin partekatzen dute... Hala, gaur, Sergio Moreno entrenatzaileak Kanarietan jokatutako partiduen gaineko analisia egin gura du, entrenatzen hasi aurretik: "Asko dago eta zuzentzeko; ia guztia egin genuen txarto Kanarietan jokatutako partiduan", dio. Eta esandakoa bete du, bideo-gelan sartuta taldekide guztiak bi orduz egon dira eta partiduen gaineko zuzenketak egiten: "Orain da zuek ere partiduen gainean duzuen iritzia partekatze momentua, egin dezagun berba garbi", esan die jokalariei, lan-saioa hasi aurretik.

Zuzenak Vital fundazioak, gurpil saskibaloiarekin batera, beste kirol jarduerak askotako

**MAIATZAREN 11KO ETA 12KO ASTEBURUAN JOKATUKO DUTE FASE ERABAKIGARRIA**

kirolariak batzen ditu: errugbi egokitua, txirrindularitza egokitua, ping-ponga, padela... Kirol jarduerak mordoa lantzen dituzte bertan: "Kiroldegi osoa dago guretako egokituta, eta instalazio oso onak dira: kantxa, gimnasioa, askotariko gelak, aldagelak... Oso ondo dago, egia esan", dio Martinek.

Hala, bideoz partidua errepa-satu ondoren, jokalariek lan-saio laburra egin dute, konturatu orduko erlojuak 22:20 adierazten du: taldekide guztiak borobila osatu dute eta talde-garrasia eginda eman diote amaiera lan-saioari. Hor, kapitainari, Perez tokatzen zaio talde-oihua egitea: "Kapitaina naiz, bai, baina nire izateko moduagatik ez dakit kapitaina izateko pertsonarik proposena naizen, nahiko isila naizelako. Baina saiatzen naiz ardura hori ahalik eta ondoen betetzen".

### Zerbitzu publikoarekin kexu

Kiroldegitik irten eta aita du atean zain: "Autobusean ere etorri izan naiz, eta hor oso atsegina ez den anekdota bat edo beste sufritu behar izan dut. Batzuetan, autobusera igotzeko arrapala apurtuta dagoelako; beste batzuetan, autobus gidariak ez duelako bertako gidaria... Aulkitik jaitsi eta autobusera arrastaka igo izan naiz. Eta beti diot gauza bera, nik badut besoetan hori egiteko indarra, baina gurpil aulkian dauden beste askok, berriz, ez".

# Emakume migratzaileei ikusgarritasuna emateko

'Petra, my Basque Grandmother' liburua idatzi du Monika Madinabeitia Huheziko irakasleak, eta Maitane Puebla eta Yera Sanchez lankideek sortu dituzte ilustrazioak; 'Amazon.es'-en eta Renoko Euskal Ikerketa Zentroaren atarian dago eskuragarri

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE  
Petra Amoroto Egaña XX. mendean Ameriketako Estatu Batuetara ezkondu zen markinarren biografia dauka oinarri Huheziko irakasle Monika Madinabeitia idatzi eta lankide dituen Yera Sanchez eta Maitane Pueblak egin dituzten ilustrazioak batzen dituen *Petra, my Basque Grandmother* liburua. "Ingelese idatzita dago, baina modu errazean irakurtzeko moduan; nire helburua ez zen liburu akademiko bat egitea, diasporan bizi direnek edo euskaldunen migrazioari buruz interesa duen euskal komunitateraino heltzea baizik", azaldu du Madinabeitiak.

Renoko Euskal Ikerketa Zentroak argitaratu du, eta martxoaren 13an aurkeztu zuten Frank Bergon euskal-amerikar idazlearen *Petra* Amorotoren iloba- omenez egin zuten kongresuan.

**Ameriketara ezkontzeko tratua**  
Literatura ipar-amerikarrean oinarritutako tesia egiten zebilela izan zuen Madinabeitiak Frank Bergon euskal idazlearen berri. "Ipar Euskal Herriko jatorrikoa zen, baina ez nuen aukeratu arrazoi horregatik; geroago sortu zitzaidan, Huheziko



Monika Madinabeitia —erdian— liburuaren idazlea, ilustratzaileekin. GOIO ARANA

## PETRA AMOROTOREN BIZIPENAK, HUHEZIKO MADINABEITIAREN, SANCHEZEN ETA PUEBLAREN ESKUTIK

lanean hasi nintzenez, euskal-amerikarrekiko interesa. Aspal-diko *Erlea* aldizkarian irakurri nuen Bergonek haren amamari buruz idatzitakoa; txunditu egin ninduten haren bizipenek, eta gehiago ikertzeko gogoia piztu.

Herriko beste hainbat neska bezala, Markinan aberats batzuen etxean neskame zen Amoroto; lankide baten senargaia Ameriketara joana zen eta hari bidalitako argazkietako batean ikusi zuen Esteban Mendibe bizkaitar migratzaileak Petraren argazkia. Amorotorekin maitemindu eta elkar ezagutzen ez zuten arren, ezkontzeko proposamena egin zion; familiakoek baimena eman, eta hala joan zen Ameriketara. Garai hartan, nahiko ohikoak ziren horrelako ezkontza-tratuak".

### Emakume askoren istorioa

Amorotoren istorioari 2015ean heldu ziola dio Madinabeitiak: "Hainbat proiektorekin joan nintzen Renora, eta horietako bat zen markinarren buruz ikertzea. Informazioa eta argazkiak bildu nituen han; Frank Bergonekin eta haren familiarekin eta Mendibe sendikoekin elkartu nintzen, besteak beste. Geroago, Markinan egon nintzen, hango familiari ere galdezka. Liburua Petraren bizipenetan oinarritu dudana arren, orokorrean emakume migratzaileen istorioa kontatzea izan da asmoa".

### Ilustrazioei leku zabala eginda

69 orri ditu liburuak, testu gutxi eta irudi askorekin, idazlearen esanetan: "Hitzaurre pare bat ditu, horietako bat Frank Bergonek idatzitakoa. Irudiarri garrantzia eman nahi nion, estilo askotariko ilustrazioak sartzea zen nire nahia, eta lankide ditudan Yera Sanchez eta Maitane Pueblari proposatu nien".

Gustura hartu zuten biek ala biek Madinabeitiak proposatutako erronka. Honelaxe dio Sanchezek: "Lan-prozesua luzea eta gogorra izan den arren, sekulako esperientzia izan da! Nire ilustrazio gehienak eskuz egindakoak dira, arkatzarekin; eta ondoren, argazkiarekin, testurarekin eta paper zaharrek osatu nituen". Puebla ere pozik da emaitzarekin: "Esker oneko hitzak besterik ez daukat parte hartzeko aukera emateagatik. Estetikari buruzko erabaki batzuk hartuta zituen Yera, eta bion artean adostu genituen, gero, bestelako ezaugarriak. Irudiez gainera, make-tazio lanak ere egin ditut. Erre-pikatzeko moduko esperientzia, duda barik!".

## 32. Arrasate Literatur Lehiaketak, harrera ona

AED elkarteak maiatzaren 16an banatuko ditu aurtengo sariak Kulturaten egingo duten ekitaldian

### A. A. ARRASATE

Berrikuntzekin abiatu zuen Arrasateko euskara elkarteak urtero antolatzen duen lehiaketa, ohiko generoez gainera, komikiak eta ilustrazioak ere batzeko proposamena eginez.

Apirilaren 5ean amaitu zen lanak entregatzeko epea, eta, jasotako lanen kopuruari begirata, pozik daudela diote antolatzaileek: "Orokorrean lan gehiago jasotzeaz gainera, parte hartze baxu samarra izan ohi duten mailatan ere, DBHtik gorakoetan, aurreko aldietan baino lan gehiago jaso dugu. Eta pozik gaude; azken batean, gazetxoak sortzera animatzea da helburu nagusietako bat".

### Guztira, 187 lan

Narrazioa izan da lehiakideen artean genero aukeratuenetako bat -60 lan-, baina haren aurretik dago estreinako eskaini duten ilustrazio lehiaketako parte-hartzaileen kopurua: 64 lan. Horrez gainera, bertso paper lehiaketan 29 lan jaso dituzte; mikro-ipuinetan, 23; poesia atalean, zortzi lan; eta hiru komiki.

Antolatzaileek eskerrak eman gura dizkiete lehiaketan bide-lagun izan dituzten irakasleei eta bestelako kolaboratzaileei.

## ELKARRIZKETTAP

GOIENA TELEBISTA

IBAN ZALDUA IDAZLEA,

JONI UBEDAK ELKARRIZKETATUTA

APIRILAREN 17AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

goiena  
Zu hemen zaude.





# Argazki-liburu altxorra, liburutegian ikusgai

Argi argazki festibalaren eta liburutegiaren eskutik, Gabriela Cendoya bildumagileak 20 urtetan batu duenaren mostra bat erakutsiko dute apirilaren 22tik maiatzaren 5era; horrez gainera, apirilaren 30ean, Cendoyarekin solasaldia izango da, 19:00etan

## Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Gabriela Cendoya Bergaretzek (Donostia, 1958) aspaldikoa du arte-liburuak erosteko zaletasuna, eta orain dela hogeitau urte inguru, argazki-liburuek harriapatu zuten. Honela kontatu du jaialdiko Itziar Bastarrikak: "Argazki zaharrak baditu, baina argazkilaritza garaikidea da, bereziki, Cendoyak duena. Tresna berria da argazki-liburua, eta gaur egun, oso erabilia eta preziatua. Etxean dituenak eta San Telmo museoari utzi dion funtsa –2300 liburu– zenbatuta, 11.000 lan inguru ditu".

## Emakumeek egindakoak

Oñatiko erakusketarako, emakume-argazkilariek egindakoak aukeratu ditu, bereziki, Cendoyak, eta 50 liburu izango direla gaineratu du Bastarrikak: "Munduko toki askotatik ekarritako liburuak dira: japoniarrak, Europako herrialde askotakoak, Espainiakoak, amerikarrak... Liburuen formatua ere kontuan hartu du Oñatiko bilduma aukeratzeko; hortaz, estilo ezberdinetakoak daude: tapa gogorreko liburuak eta fanzine itxurakoak ere bai".

Orokorrean, argazki-liburua nahiko tresna arrotza da, baita liburutegiko erabiltzaileentzat

ere; horregatik, bada, antolatzailleek aukera aprobetxatzeko gonbidapena egin dute: "Sekulako luxua da bilduma ikusi, ukitu eta usaindu ahal izatea".

## "Sabotatutako" poztasuna

Erdialdera heldu da laugarren Argi argazki festibala, eta antolatzailleak pozik daude orain arte egindakoarekin; onak dira herritarren partetik, orokorrean, jaso dituzten iritziak: "Kalean ahalik eta gauza gehien jartzeko ahalegina egin dugu aurten, eta herritarren feedback

ona jaso dugu. Zoritzarrez, baina, poztasuna zapuztu duten erasoak jaso dituzte hainbat lanek; esaterako, Foruen plazan dagoen *Plaketak* (Aitziber Orkolaga) bildumak, erakusketa muntatu eta biharamunean. Zoritzarrez, erasoak ez da hor geratu: *Ispiluak* (Ilunpetan argazki taldea) bildumakoak moztuta, margotuta eta zakarrontzitik gertu ere agertu dira. Min ematen du, baina ilusioarekin egingo ditugu geratzen diren ekintzak; zinekluba eta ikastaroa, besteak beste".



Gabriela Cendoya Bergaretxe bildumagilea. REIMI GOMEZ

## Frantziako Poitou eskualdekoak dantzatzeko aukera Espaloian

Apirilaren 28an, 19:00etan, izango da Herrixa Dantzan ekimenaren hurrengo saioa; guztiontzako zabalik dago

## A. A. ELGETA

Gonbidatu asko dituzte azkenaldian Elgetako Herrixa Dantzan saioetan: martxoko azken domekan, Biarnoko Joan Frances Tisner musikariarekin Okzitaniako kontradantzak ikasi zi-

tuzten, eta Ameriketako Estatu Batuetako musika tradizionala entzuteko eta dantzatzeko bidea eman zuten Northern Harmony abesbatzak eta Jeremy Carter musikariak, aurreko domekan, 80 lagun bildu zituen saioan.

Hogei urteko ibilbidea duen Christian Pacher folk musikaria gonbidatu dute apirilaren 28an 19:00etan egingo duten dantza saiorako. Folk dantzaldietako ohiko dantzak –borobila, *chapellose*-ak, balsak, polkak, mazurkak...– eroango ditu Elgetara, eta baita Frantziako Poitou eskualdekoak ere. Aurrez egin izan duten moduan, Ahetzeko (Lapurdi) Aniez Perezekin elkarlanean antolatu dute; izan ere, bezperan, Baionan egingo du dantzaldia Pacherrek.

Goiena Klubaren txokoa

**Goiena Klubeko apirileko sariak!**



**Korrikako materiala**  
Parte hartzeko sariaren izena: Korrika

### Sarrerak

**Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.**

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

**ARRIKUTZ**

### Otarrea

**Bidezko merkataritzako produktuak.**

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

[www.harremandenda.org](http://www.harremandenda.org)

**Goiena Klubeko materiala**

### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) | **Whatsapp:** KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzailoen artean egingo da zozketa.

Irabazlearen izena (DNI) 15/10/2019an artean jaso behar da, gero ezin duzue hartu. Gainera, Goienak Klubeko sariak ez dira erabiltzeko. Irabazlearen izena ezin duzue erabiltzeko. Irabazlearen izena ezin duzue erabiltzeko. Irabazlearen izena ezin duzue erabiltzeko.

### Irabazi bi lagunendako otordua

**HILARION JATETXEARI ESKER**

Begiratu Puntua aldizkaria Otoroduan atala eta hartu parte!

943 25 05 05 | [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

**KLUBA** Jatekoa  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

### Irabazi bi lagunendako sarrerak

**Bergarako Udalari esker**

"Erlauntza" antzerkiaren sarrerak ditugu.

Bergara | Seminarixoa | Maiatzaren 4an | 19:00etan

### PARTE HARTZEKO:

E-postaz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) | **WhatsApp:** KLUBA "Erlauntza" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzailoen artean egingo da zozketa.

Irabazlearen izena (DNI) 15/10/2019an artean jaso behar da, gero ezin duzue hartu. Gainera, Goienak Klubeko sariak ez dira erabiltzeko. Irabazlearen izena ezin duzue erabiltzeko. Irabazlearen izena ezin duzue erabiltzeko. Irabazlearen izena ezin duzue erabiltzeko.


Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...



Egin zaitetz Goiena Klubeko bazkide! Urte osoa, 5€ bakarrik!  
Eta bazkideen artean, astero zozketak, deskontuak...  
Deitu: 943 25 05 05 • [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!





**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**  
edo [eskelak@goiena.eus](mailto:eskelak@goiena.eus)

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**  
**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**  
**ARRASATE** Goiena: Otorlora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.  
**BERGARA** Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.  
**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.  
**ELGETA** Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.  
**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 19	SANCHEZ ALVAREZ: Santa Marina 32 / 943 79 09 74
Zapateria, 20	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 0
Domeka, 21	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Astelehena, 22	IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Martitzena, 23	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
Eguaztana, 24	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Eguena, 25	FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 19	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Zapateria, 20	MÓZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Domeka, 21	MÓZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Astelehena, 22	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Martitzena, 23	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Eguaztana, 24	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 0
Eguena, 25	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 19	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Zapateria, 20	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Domeka, 21	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Astelehena, 22	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Martitzena, 23	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguaztana, 24	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguena, 25	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

**ARRASATE GAUEZ EGUNEZ**  
(22:00etatik 09:00etara)  
2019ko abuztuaren 30era arte:  
ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65

**BERGARA GAUEZ EGUNEZ**  
(22:00etatik 09:00etara)  
2019 osoan:  
OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 19 63

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:  
COP Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

## HILDAKOAK

- Inazio Maria Bengoetxea Letamendia.** Arrasaten, apirilaren 11n. 57 urte.
- Ramon Irazola Gomez.** Bergaran, apirilaren 12an. 75 urte.
- Maria Luisa Bengoetxea Etxaniz.** Oñatin, 12an. 69 urte.
- Rosario Lasaga Solaguren.** Arrasaten, 13an. 86 urte.
- Rosa Mari Pildain Elkorobarrutia.** Bergaran, 15ean. 63 urte.
- Carmen Peña Manterola.** Oñatin, apirilaren 15ean. 92 urte.

### OROIGARRIA

## Maria Luisa Bengoetxea Etxaniz

'Luisita'

2019ko apirilaren 12an hil zen, 69 urte zituela.



*Nahiko genuke zuk erakutsi  
Diguzun indarrari eutsi  
Baina albotik joan zarenik  
Ezin oraindik sinetsi  
Oroitzenak gurekin daude*

*Eta ez gainera gutxi  
Bizitzaren azkenean ere  
Lekukoa duzu utzi  
Gero arte ta muxu haundi bat  
Bihotzeko tia Luxi.*

Familiakoak: Garbiñe, Ainhoa, Esther eta Antonio, Ione, Eleder, Aitor, Marga, Markel, Laia, Ane eta Oier. Oñatin, 2019ko apirilaren 17an.

### OROIGARRIA



## Maria Luisa Bengoetxea Etxaniz

'Luisita'

2019ko apirilaren 12an hil zen, 69 urte zituela.



*Maitasunez*

Lurdes, Rosarito, Belen, Ana Mari, Pui eta Mertxe. Oñatin, 2019ko apirilaren 17an.

### ESKER ONA

## Gerardo Morras Garaitonandia

2019ko apirilaren 8an hil zen, 70 urte zituela.



Mila esker gure ondoan egon zareten guztiari.  
Gertu sentitu dugu Gerardorekiko izan duzuen maitasuna eta horrek aurrera egiten lagunduko digu.

Etxekoak.  
Arrasaten, 2019ko apirilaren 17an.

## OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



*Jakin ezazue  
nahiz eta heriotz  
asegurua  
izan, zuek  
nahi duzuen  
hileta-zerbitzua  
aukeratzeko  
eskubide osoa  
duzuela.*

*Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza  
dut beti zuentzako.*

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

## TXUTXU-MUTXUAK

**1. Eskola kirolaz gozatzen**

Leintz Eskola Kirolak deituta, LHko 3. mailatik DBHko bigarren mailara arteko 50 bat ikasle batu ziren. Bizikleta gaineko ariketak eta bizikleta ibilaldia egin zituzten.

**2. Aitona-amonez omenez**

Oinatz Andetxagak eta Libe Agirrek irabazi zuten *Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu* lehiaketa. Gurutze Oianguren eta Jesusa Arenaza omendu zituzten biek ala biek.

**3. Urteko azoka kuttunena**

Erramu Zapatukoa da bergarrendako urteko azoka nagusia. Salmenta postuak, erakustaldiak, lehiaketak eta kaleko giroa izango ziren protagonista.

**4. Oporren aurreko ekintzak**

Elgetako ikasleek askotariko ekintzak egin zituzten oporren aurretik: ipuin kontaketak, musika emanaldia, kultura zirkuitua, liburutegira bisita...

**5. Bigarren saria Maribor-en**

Bailarako hainbat ordezkari dituen Kup abesbatza bigarren sariarekin itzuli da Esloveniako Gallus Nazioarteko Lehiaketatik, 93,9 puntu lortuta.

**Kontatu, kontatu!**

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidaliguzu argazkia!

**Posta elektronikoa**

Mezua bidali [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

**Ordezkaritzak**

Zatoz Goienaren ordezkaritzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



## ZORION AGURRAK

# Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

## Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaituz Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

**Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.**

**Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.**



**OÑATI**  
**Unax Gende Sanchez**  
Apirilaren 30ean, 5 urte. Zorionak, maittia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean! Muxu handi bat, etxekoan partetik! Askok maite zaitugu.



**ARAMAIO**  
**Libe Reguero Osinaga**  
Apirilaren 27an, 5 urte. Zorionak, printzesa, etxeko danon partetik. Disfrutatuta pila bat eguna, merezi duzu-eta. Askok maite zaitugu eta muxu potolo bat!



**OÑATI**  
**Goiatz Marton Camino**  
Apirilaren 27an, urtebete. Zorionak, Goiatz! Jada urtebete! Muxu erraldoi bat Maialenen, Anartzen, Oxelen, Agerren eta Amaneren partetik.



**OÑATI**  
**Maddi Aurrekoetxea Elorza**  
Apirilaren 24an, 6 urte. Zure poza eta kantuak, gure arnasa eta ametsak. Ondo-ondo ospatu gaur betetzen ditzuzun seirak.



**OÑATI**  
**Ekain Leibar Zumalde**  
Apirilaren 23an, 6 urte. Zorionak, Ekain! Segi zaren moduko izaten. Merezki dozun moduan ospatuko dugu eguna. Muxu potolo bat, etxeko danon partetik.



**ELGETA**  
**Intza Aranzabal Sarasua**  
Apirilaren 23an, 7 urte. Zorionak eta musu handi-handi bat etxeko danon partetik!



**OÑATI**  
**Iraia Arregi Orueta**  
Apirilaren 21ean, 11 urte. Zorionak, *guapa!* Ondo pasatu zure eguna, familiarekin eta lagunekin! Patxo bana danon partetik. Bereziki Aiantze eta Ane ahizpena. Mua!



**ARRASATE**  
**Irati Jimenez Aldama**  
Apirilaren 20an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Segi gure bizitza pozten. Izugarri maite zaitugu. Patxo erraldoi bat etxekoan eta, bereziki, Ibairren eta Goizaneren partetik.



**OÑATI**  
**Luka Regueiro Madina**  
Apirilaren 20an, urtebete. Zorionak, pottolo! Ze aguro pasatu dan. Patxo pila, familiako danon partetik eta atxutxoi berezika, Nikorena.



**OÑATI**  
**Nahia Guridi Olalde**  
Apirilaren 18an, 10 urte. Zorionak, Nahia! Ondo pasatu zure eguna. Danok elkarrekin egongo gara... Askok maite zaitugu: amatxo, Danel...eta bereziki, aitaxo.



**ARRASATE**  
**Lide Azkarate Ojanguren**  
Apirilaren 18an, 13 urte. Zorionak, Lide! Garaziren, amatxoren, aitaxoren, lehengusu Oihanen eta Hegoiren, amama-aitaiten eta osaba-izeben partetik.



**BERGARA**  
**Julen Unamuno Marzan**  
Apirilaren 17an, 10 urte. Zorionak eta urte askotarako, Julen! Ekaitzen eta etxekoan partetik, egun zoragarria pasatu.



**ARETXABALETA**  
**Maren Axpe Gabilondo**  
Apirilaren 17an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Patxo potolo bat etxeko danon partetik!



**OÑATI**  
**Maren Oleaga Mugarza**  
Apirilaren 17an, 6 urte. Zorionak, Maren! Ondo-ondo ospatu zure eguna. Patxo potolo bat eta belarritik sei tirakada, etxekuen partetik!




**ARRASATE**  
**Izar Ullibarri-arana Sagasta**  
Apirilaren 15ean, urtebete. Zorionak, Iaztana! Ze azkar pasatu dan! Muxu handi bat, familia osoaren, baina bereziki, Lierren eta Pauleren partetik!




**OÑATI**  
**Oier Laka Sansinenea**  
Apirilaren 14an, 9 urte. Zorionak, Oier! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu handi bat, etxeko danon partetik.



**ARRASATE**  
**Jon Balzategi**  
Apirilaren 14an, 40 urte. Zorionak, Potolo! Egun zoragarria izan dezazula! Muxu handi bat Aneren, Marenen, Haizearen eta Izarren partetik!



**ARRASATE**  
**Asier Lalinde Bergaretxe**  
Apirilaren 14an, 4 urte. Zorionak, Asier! Ondo pasatu eguna. Zelaibotarren partetik, muxu handi bat!



**ARETXABALETA**  
**Ibai Melgar Merino**  
Apirilaren 13an, 8 urte. Zorionak, Ibai! Zortzi urte gure artian, pozik eta alai. Segi horrela, pitxin! Familiaren, eta, bereziki, Iradiaren eta Izeiren partetik. Maite zaitugu! Aupa, Ibai!



**ARETXABALETA**  
**Libe Zubillaga Olabe**  
Apirilaren 13an, 1 urte. Zorionak, Libe! Lau urte jadanik! Oso ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat, etxeko danon eta, bereziki, Danelen eta Oxelen partetik!



**ARRASATE**  
**Maialen Velez de Mendizabal Otero**  
Apirilaren 13an, 11 urte. Zorionak, etxeko danon partetik! Ondo-ondo ospatu zure eguna lagunekin eta familiarekin! Patxo eta besarkada pilo bat!



**ESKORIATZA**  
**Beñat Arana Romero**  
Apirilaren 13an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Dagoeneko sei urteko! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzian eta patxo potolo bat, danon partetik! Askok maite zaitugu, artista!



**ELGETA**  
**Xare Zabala Sarasketa**  
Apirilaren 12an, etxeko printzesak urteko bat etxek dau. Zorionak etxeko danon baina, bereziki, Inharren partetik. Ondo-ondo pasatu zure egunian.



**ARETXABALETA**  
**Oier Otxoa Diaz de Guereñu**  
Apirilaren 12an, 7 urte. Zorionak, Oier! Zure familiaren partetik, ondo pasatu zure egunean.



**ARRASATE**  
**Paule Lizaur Sagasta**  
Apirilaren 1ean, 2 urte. Zorionak, maittia! Bi urteko dagoeneko! Muxu handi bat familia osoaren, baina bereziki, Lierren, Aimarren eta Izarren partetik!

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUAZTENA 17

**ARETXABALETA Astronomia tailerrak**

*Nork esan du hemen ez direla izarrak ikusten?* izeneko tailerra egingo dute LHko 4, 5 eta 6. mailetakoko ikasleek.  
**Arkupen, 10:30ean.**

**OÑATI Kukua Eguna**

San Martingo baratzeak eta parke berria ezagutzeko bisita. Amaieran, salda eta txistor-opila egongo dira. Batutakoen artean karapaxoa zozketatuko dute.  
**San Martingo zubian, 11:00etan.**

**OÑATI Bisita gidatua Arantzazun**

Santutegia ezagutzeko aukera. 10:30ean, 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz eta 11:30ean eta 16:00etan euskaraz. Aurrez eman behar da izena: [turismo@debagoiena.eus](mailto:turismo@debagoiena.eus).  
**Arantzazun.**

**BERGARA 'Bergara monumentalak' bisita gidatua**

Jauregiak eta alde zaharra ezagutzeko aukera, 11:00etan eta 12:30ean. Aurrez eman behar da izena: [turismo@debagoiena.eus](mailto:turismo@debagoiena.eus).  
**Bergaran.**

**OÑATI Umeendako ekintzak**  
Lorategi tailerra egingo dute. Haziak landatu eta loreontziak apainduko dituzte.  
**Foruen plazan, 16:30ean.**

**BERGARA Eguaztenetako azoka**  
Herriko baserritarren eta garaiko produktuak erosteko aukera.  
**Oxirondon, 18:00etan.**

**OÑATI Obradoiro Vocal A Vila eta Cantemos abesbatzak**  
Pontearreas (Pontevedra) herriko bi taldeen emanaldia, Ganbara Txiki abesbatzak gonbidatuta.  
**Santa Anan, 20:30ean.**

## EGUENA 18

**OÑATI Bisita gidatua Arantzazun**  
Santutegia ezagutzeko aukera. 10:30ean, 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz eta 11:30ean eta 16:00etan euskaraz. Aurrez eman

16:00etan euskaraz. Aurrez eman behar da izena: [turismo@debagoiena.eus](mailto:turismo@debagoiena.eus).  
**Arantzazun.**

**ESKORIATZA Bisita gidatua**  
Besteak beste, Ibarraundi museoa eta Zubiate labea ezagutzeko aukera. Aurrez eman behar da izena: 943-71 54 53 edo [ibarraundi@eskoriatza.eus](mailto:ibarraundi@eskoriatza.eus).  
**Ibarraundin, 10:00etan.**

**BERGARA 'Bergara monumentalak' bisita gidatua**

Jauregiak eta alde zaharra ezagutzeko aukera, 11:00etan eta 12:30ean. Aurrez eman behar da izena: [turismo@debagoiena.eus](mailto:turismo@debagoiena.eus).  
**Bergaran.**

**LEINTZ GATZAGA Gatz Museora bisita gidatua**

12:00etan euskaraz egingo dute eta 13:00etan gazteleraz. Aurrez eman behar da izena: 943-71 47 92 edo [reservas@gatzmuseoa.com](mailto:reservas@gatzmuseoa.com).  
**Gatz Museoa.**

**OÑATI Parketxean bisita gidatua**

Aizkorri-Aratz parke naturalaren interpretazio-gunea ezagutzeko aukera, 12:00etan.  
**Parketxean.**

**OÑATI 'Oñatiko altxor ezkutua' bisita gidatua**

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera, 13:00etan eta 17:00etan. Aurrez eman behar da izena: 943-78 34 53 edo [turismo@onati.eus](mailto:turismo@onati.eus).  
**Turismo Bulegoan.**

**OÑATI Umeendako ekintzak**  
Jokoak eta jolasak egingo dituzte.  
**Foruen plazan, 16:30ean.**

**OÑATI 'Campeones' pelikula**  
Kuboko erabiltzaileendako emanaldia.  
**Kuboan, 20:00etan.**

## EGUBAKOITZA 19

**OÑATI Bisita gidatua Arantzazun**  
Santutegia ezagutzeko aukera. 10:30ean, 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz eta 11:30ean eta 16:00etan euskaraz. Aurrez eman

behar da izena: [turismo@debagoiena.eus](mailto:turismo@debagoiena.eus).  
**Arantzazun.**

**ESKORIATZA Bisita gidatua**

Besteak beste, Ibarraundi museoa eta Zubiate labea ezagutzeko aukera. Aurrez eman behar da izena: 943-71 54 53 edo [ibarraundi@eskoriatza.eus](mailto:ibarraundi@eskoriatza.eus).  
**Ibarraundin, 10:00etan.**

**BERGARA 'Bergara monumentalak' bisita gidatua**

Jauregiak eta alde zaharra ezagutzeko aukera, 11:00etan eta 12:30ean. Aurrez eman behar da izena: [turismo@debagoiena.eus](mailto:turismo@debagoiena.eus).  
**Bergaran.**

**OÑATI 'Iberiar hegazti sarraskijaleak' erakusketa**  
Hegalari handiek egiten duten lanaren garrantzia ezagutzeko aukera, Ramon Aranbarrak eta Mario Bregañak egindako argazkiekin.  
**Gandiaga Topagunean, 11:00etan.**

**OÑATI Txokolateixian bisita gidatua**

Kakaoaren historia ezagutzeko aukera.  
**Txokolateixan, 11:00etan.**

**BERGARA Jose Luis Ezeizaren erakusketa**  
Gaurtik maiatzaren 5era arte.  
**Aroztegin, 12:00etan.**

**LEINTZ GATZAGA Gatz Museora bisita gidatua**

12:00etan euskaraz egingo dute eta 13:00etan gazteleraz. Aurrez eman behar da izena: 943-71 47 92 telefonoan edo [reservas@gatzmuseoa.com](mailto:reservas@gatzmuseoa.com).  
**Gatz Museoa.**

**OÑATI Parketxean bisita gidatua**  
Aizkorri-Aratz parke naturalaren interpretazio-gunea ezagutzeko aukera.  
**Parketxean, 12:00etan.**

**OÑATI 'Oñatiko altxor ezkutua' bisita gidatua**  
Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera, 13:00etan eta 17:00etan. Aurrez eman behar da izena: 943-78 34 53 edo [turismo@onati.eus](mailto:turismo@onati.eus).  
**Turismo Bulegoan.**



MIREN PASTOR

**OÑATI Argi Festibala: erakusketa bikoitza Arantzazun**

Elisa Gallegoren *Maqueta de un paisaje* eta Antonio Guerraren *Comportamiento para un simulacro* daude ikusgai maiatzaren 12ra arte. Maketak eta argazkiak dira erakusketako protagonistak.  
**Gandiaga Topagunean, 11:00-14:00 eta 16:30-19:30.**

## ZAPATUA 20

**OÑATI 'Gaztagintzaren sekretuak' bisita gidatua**  
Gomiztegira bisita. Aurrez eman behar da izena: 943-25 10 08.  
**Parketxean, 10:30ean.**

**ARRASATE 'Esparru gotortuak' bisita gidatua**

Arrasatek historian zehar izan dituen gotorlekuei eta babes eraikuntzei buruzko bisita. Aurrez eman behar da izena: [info@feeuskadi.eu](mailto:info@feeuskadi.eu).  
**Herriko plazan, 11:00etan.**

**BERGARA 'Bergara monumentalak' bisita gidatua**

Jauregiak eta alde zaharra ezagutzeko aukera, 11:00etan eta 12:30ean. Aurrez eman behar da izena: [turismo@debagoiena.eus](mailto:turismo@debagoiena.eus).  
**Bergaran.**

**LEINTZ GATZAGA Gatz Museora bisita gidatua**

12:00etan euskaraz egingo dute eta 13:00etan gazteleraz. Aurrez eman behar da izena: 943-71 47 92 edo [reservas@gatzmuseoa.com](mailto:reservas@gatzmuseoa.com).  
**Gatz Museoa.**

**OÑATI 'Oñatiko altxor ezkutua' bisita gidatua**

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera, 13:00etan eta 17:00etan. Aurrez eman behar da izena: 943-78 34 53 edo [turismo@onati.eus](mailto:turismo@onati.eus).  
**Turismo Bulegoan.**

## DOMEKA 21

**ARRASATE 'PR-GI 205: Anporretarako bira' bisita gidatua**  
Burdinaren bidea egingo dute: mineralak non garbitzen ziren, Itturritxipi eta Epele, Meatzerreka auzoa... Aurrez eman behar da izena: [info@feeuskadi.eu](mailto:info@feeuskadi.eu).  
**Monterronen, 09:00etan.**

**OÑATI Arrikutzeko bisita**  
Kobazuloen munduan gertutik ezagutzeko bisita. Aurrez eman behar da izena: 943-08 20 00.  
**Arrikutzen, 09:30ean.**

**BERGARA 'Bergara monumentalak' bisita gidatua**

Jauregiak eta alde zaharra ezagutzeko aukera, 11:00etan eta 12:30ean. Aurrez eman behar da izena: [turismo@debagoiena.eus](mailto:turismo@debagoiena.eus).  
**Bergaran.**

**LEINTZ GATZAGA Gatz Museora bisita gidatua**

12:00etan euskaraz egingo dute eta 13:00etan gazteleraz. Aurrez eman behar da izena: 943-71 47 92 edo [reservas@gatzmuseoa.com](mailto:reservas@gatzmuseoa.com).  
**Gatz Museoa.**

**OÑATI San Migel errotan bisita gidatua**

Oñatiko jauntxoek eta gebaratarrek aleak non eta nola ehorzten zituzten ikusteko aukera, 12:45ean eta 16:45ean.  
**Turismo Bulegoan.**

## ASTELEHENA 22

**OÑATI Arrikruzteko bisita**  
Kobazuloen munduan gertutik ezagutzeko bisita. Aurrez eman behar da izena: 943-08 20 00. *Arrikruzten, 09:30etan.*

**OÑATI Txokolateixian bisita gidatua**  
Kakaoaren historia ezagutzeko aukera. *Txokolateixian, 11:00etan.*

**ESKORIATZA Bisita gidatuak**  
Besteak beste, Ibarraundi museoa eta Zubiate labea ezagutzeko aukera. Aurrez eman behar da izena: 943-71 54 53 edo *ibarraundi@eskoriatza.eus. Ibarraundin, 10:00etan.*

**LEINTZ GATZAGA Gatz Museora bisita gidatua**  
12:00etan euskaraz egingo dute eta 13:00etan gaztelaraz. Aurrez eman behar da izena: 943-71 47 92 edo *reservas@gatzmuseoa.com. Gatz Museoan.*

**BERGARA Jose Luis Ezeizaren erakusketa**  
Maiatzaren 5era arte. *Arozegin, 12:00etan.*

**OÑATI 'Oñatiko altxor ezkutua' bisita gidatua**  
Sancti Spiritus unibertsitatea eta parroquia ezagutzeko aukera, 13:00etan eta 17:00etan. Aurrez eman behar da izena: 943-78 34 53 edo *turismo@onati.eus. Turismo Bulegoan.*

**BERGARA 'Bergara monumental' bisita gidatua**  
Jauregiak eta alde zaharra ezagutzeko aukera, 11:00etan eta 12:30etan. Aurrez eman behar da izena: *turismo@debagoiena.eus. Bergaran.*

**DEBAGOIENA Jardunaldi gastronomikoak**  
Goiko Benta (Oñati), Hilarion (Arrasate), Lasa (Bergara), Maialde (Elgeta) eta Santa Ana (Arrasate) jatetxeetan menu bereziak, hilaren 28ra arte, sasoiko produktuekin. *Jatetxe horietan.*

## MARTITZENA 23

**OÑATI Urbiara irteera**  
DBH-1eko gazteendako, gaztelekuko hezitzaileek lagunduta. Aurrez eman behar da izena. *Gaztelekuan, 09:00etan.*

**OÑATI Bisita gidatua Arantzazun**  
Santutegia ezagutzeko aukera. 10:30etan, 12:30etan eta 17:00etan gaztelaraz eta 11:30etan eta 16:00etan euskaraz. Aurrez eman behar da izena: *turismo@debagoiena.eus. Arantzazun.*

**OÑATI Ludotekaren ekintza**  
Ipuin tailerra egingo dute. Eguraldi txarra bada, azokan. *Foruen plazan, 10:30etan.*

**OÑATI Bizikleta irteera**  
Kuboko erabiltzaileendako, bidegorritik, gaztelekuko hezitzaileek lagunduta. *Kuboan, 16:00etan.*

## EGUAZTENA 24

**OÑATI Lekeitiora irteera**  
DBH-2ko gazteendako, gaztelekuko hezitzaileek lagunduta. *Gaztelekuan, ordua zehaztu barik.*

**OÑATI Kuboko dekatloia**  
Hamar kirol probatan oinarritutako taldekako jolasa, kuboko erabiltzaileendako. *Kuboan, 10:00etan.*

**OÑATI Ludotekaren ekintza**  
Jolas erraldoiak egingo dituzte. Eguraldi txarra bada, azokan. *Foruen plazan, 10:30etan.*

**OÑATI Bisita gidatua Arantzazun**  
Santutegia ezagutzeko aukera. 10:30etan, 12:30etan eta 17:00etan gaztelaraz eta 11:30etan eta 16:00etan euskaraz. Aurrez eman behar da izena: *turismo@debagoiena.eus. Arantzazun.*

**BERGARA 'Bergara monumental' bisita gidatua**  
Jauregiak eta alde zaharra ezagutzeko aukera, 11:00etan eta

12:30etan. Aurrez eman behar da izena: *turismo@debagoiena.eus. Bergaran.*

**OÑATI Eguaztenetako azoka**  
Herriko baserriarren eta sasoiko produktuak erosteko aukera. *Oxirondon, 18:00etan.*

**ARETXABALETA Jokoak**  
Industriaren herri kirolak egingo dituzte. *Herriko Plazan, 18:00etan.*

## EGUENA 25

**OÑATI Hontza Extrem-era irteera**  
Gatz Museora ere joango dira kuboko erabiltzaileak. Aurrez eman behar da izena. *Postetxeko geltokian, 10:00etan.*

**OÑATI Ludotekaren ekintza**  
*Makedo* jolasa egingo dute. Eguraldi txarra bada, azokan. *Postetxeko geltokian, 10:00etan.*

**OÑATI Argazki liburuen erakusketa**  
Gabriela Cendoya funtsaren bilduma ikusgai, maiatzaren 5era arte, Argi Festibalaren baitan. *Liburutegian, 10:00etan.*

**OÑATI Garbigune ibiltaria**  
Herritarrek utzitako materiala batuko dute. *Olakua auzoan, 10:30etan.*

**BERGARA 'Vera la soñadora' liburuen aurkezpena**  
Sardiniako Cinzia Tuveri idazlearekin elkarlanean egindako lana aurkeztuko du Usoa Mendikute bergararrak. *Irizar jauregian, 19:00etan.*

**ELGETA 'Euskadiko gudarostea eta Molaren eraso' hitzaldia**  
Berangoko Burdin Hesiaren museoko arduradun Aitor Miñambresen egingo du berba. *Udaletxean, 19:00etan.*

**OÑATI 'Pájaros de verano', zineklubean**  
Ciro Guerra eta Cristina Gallego zuzendari kolonbiarren pelikula. *Kultura etxean, 20:00etan.*

## ZINEMA

### OÑATI

#### KULTURA ETXEA

**Ay, mi madre!**  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelena: 19:30.

### EIBAR

#### COLISEO

**Shazam!**  
Zapatua eta domeka: 17:00.  
**Dolor y gloria**  
Zapatua: 19:45, 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelena: 20:30.

**Aqui empieza todo**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Lo dejo cuando quiera**  
Zapatua: 19:45, 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelena: 20:30.

#### ANTZOKIA

**El niño que pudo ser rey**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Shazam!**  
Zapatua: 19:45, 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelena: 20:30.

### GASTEIZ

#### FLORIDA

**Shazam!**  
Eguenetik eguaztena: 12:00, 17:00.  
**Aqui empieza todo**  
Eguenetik eguaztena: 18:25.

**Bikes, the movie**  
Eguenetik eguaztena: 12:00, 16:35, 18:25.

**Como entrenar a tu dragon 3**  
Eguenetik eguaztena: 12:00.

**Dobles vidas**  
Eguenetik eguaztena: 18:25, 22:30.

**Dolor y gloria**  
Eguenetik astelehenera eta eguaztena: 20:00, 22:30.  
Martitzena: 20:00.

**Dumbo**  
Eguenetik eguaztena: 12:00, 17:30.

**El dia que vendra**  
Eguenetik eguaztena: 19:45, 22:30.

**El hijo del acordeonista**  
Eguenetik eguaztena: 20:30, 22:30.

**El parque magico**  
Eguenetik eguaztena: 12:00, 16:40, 18:30.

**Gracias a Dios**  
Eguenetik eguaztena: 17:00, 19:45, 22:30.

**La alfombra magica (euskaraz)**  
Eguenetik eguaztena: 12:00.

**La espia roja**  
Eguenetik astelehenera eta eguaztena: 18:30, 20:30, 22:30.  
Martitzena: 18:30, 22:30.

**La profesora de parvulario**  
Eguenetik eguaztena: 16:30, 20:30.

**La vida de Brian**  
Martitzena: 20:30.

**Las invisibles**  
Eguenetik astelehenera eta eguaztena: 20:30, 22:30.  
Martitzena: 22:30.

**Lo dejo cuando quiera**  
Eguenetik astelehenera eta eguaztena: 16:30, 20:30, 22:30.  
Martitzena: 16:30, 20:35, 33:30.

**Mia y el leon blanco**  
Eguenetik eguaztena: 12:00, 16:35.

**Ralph rompe Internet**  
Eguenetik eguaztena: 12:00.

**Los idos de marzo**  
Martitzena: 20:30, 00:00.

## KRITIKA

**Soinujolearen semea** ★★★★★

**Zuz.:** Fernando Bernues. **Herr.:** Espainia (2019). **Aktoreak:** Aitor Beltran, Iñaki Rikarte, Cristian Merchan. **Iraupena:** 95 minutu.

## Iragana argitzen

### ANTONIO ZABALA

Davidek eta Josebak urte asko daramate elkar ikusi gabe. Baina gertatutako guztia eta ezkutututako sekretuak argitzeko momentua heldu zaie. Gerra zibilaren mamuak bizirik daude: izandako hilketak eta salaketak. Francoren garaian gizartean eta familietan sortutako giroa itogarria da. Horrek guztiorrek eragina izango du gizakien eguneroko bizitzan eta harremanetan. Gorrotoak, mesfidantzak eta indarkeriak ondorengo urteetako bizimodua eta giroa kutsatzen dute. Horrek guztiorrek zer-nolako eragina izan duen bi lagun harremanetan ikusiko dugu. Dena den, Davidek pisu handiago izango du kontatutako istorioan. Lagunekin, familiarekin, neskekin dituen

harremanak azaltzen dira; eta Josebarekin izandako harreman guztien batuketaren ondorioa da. Egoera eta pertsonaia pila bat agertzen dira. Liburu batean toki handiago egoten da osagai guztiak lantzeko. 95 minutuko film baten ezinezkoa da dena behar den sakontasunarekin azaltzea. Hauxe da *Soinujolearen semea*-rekin gertatzen dena. Gauzak gainetik pasatzen direla, eta eszena batzuek momentuaren intentsitatea harrapatzeko dutena baino iraupen handiagoa izan beharko luketela. Gainera, aktoreen interpretazioek ez dute maila bera, eta pertsonaia batzuk ahulduta geratzen dira. Interesez ikusten da, baina ez du lortzen behar zuen sendotasunik.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

## Auzolana

Auzolana hitza nonahi agertzen da. Joan zen astean, esate baterako, ondokoak entzun nituen, lehena irratian eta bestea lan-jardunaldi batean: herri bateko liburutruraketa ekimena auzolana dela, enpresa bat erre eta egoerari aurre egiteko jasotako laguntza auzolanaren eredu dela. Orri hauetan bertan askotan agertzen dira auzolana aipatzen duten notizia eta idatziak.

Gehienetan, elkarlanaren edo lankidetzaren sinonimo bezala erabiltzen da. Baina esanahi horretaz gain, jatorrizko zentzua dago. Auzolanean etxe bakoitzetik kide batek parte hartzea derrigorrezkoa da –auzoko bidea konpontzeko, adibidez–, eta hala egin ezean, ordezkaturako duenaren lansaria ordaindu beharko du. Ez da, hortaz, borondate soila. Auzolana munduko hainbat lekutan egin izan da eta egiten da; seguruenik, ez da sortzen kasualitatez, baizik eta komunitatearen superbibentzia mekanismo moduan. Komunitatea da gakoa.

Badirudi *elkarlan* eta *lankidetz*a hitzek ez dutela nahikoa indarririk eta zerbait gehiago adierazteko *auzolana* era jotzen dugula. Terminoaren erabilpen handiak, baina, onurak dauzka, komunitatea goraiatzeko baitugu.

BUKATZEKO

# Aretxabaletan egindako karapaixoa, Sevillara

Betis futbol taldeko jokalaria Joaquin Sanchez erdilariak jaso du Aretxabaletako okindegian egindako karapaixoa. Istorio berezia dago atzean: urtebetetze-opari bat dela-eta jaso du garizuma garaian aita pontekoek oparitzen duten pazko-opila

**Aitor Agiriano** ARETXABALETA

Aretxabaletako okindegiko langile Mari Carmen Agirianoren ilobaren, Ekaitzen, 15. urtebetetze eguna zela-eta etorri da Betis taldeko jokalaria Joaquin Sanchezek Aretxabaleta okindegiko karapaixoa jasotzearen istorio berezia.

Bartzelona eta Betis futbol taldeen jarraitzaile sutsua da hura, Ekaitz. Sevillan oporretan egon ziren azken aldian, lehenetik ere Betis futbol taldearen kamisetak eduki arren, 800 partidua ofizial baino gehiago jokatu dituen Joaquin Sanchez erdilariaren kamiseta erosi zuen.

Hala, urtebetetze egunerako opari berezi bat egitea otu zitzaion Agirianori: "Jokalaria sinaturiko argazki bat oparitzea etorri zitzaidan burura. Hori horrela, telefonoa hartu eta arratsalde oso bat pasa nuen Sevillara deiak egin eta egin, bururatutakoa gauzatu ahal izango ote nuen esperantzarekin. Baina ez nuen ezer lortu." dio okindegiko langile Agirianok.

Dena den, ez zuen amorerik eman eta berehala gogoratu zen Sevillan duten lagun on batekin: "Sevillan aspaldiko laguna dugunarekin harremanetan jarri



Joaquin Sanchez futbol jokalaria, karapaixoa eskuetan duela. MARI CARMEN AGIRIANO

nintzen gero. Ea Sanchezek sinaturiko argazki bat lortuko ote zidan komentatu nion, eta hark baietz, nola edo hala lortuko zuela eta bidaliko zidala".

Handik hiru egunera, bideo bat jaso zuen, Sevillako lagunak bidalita: "Ekaitz, hori izena daukazuna, *mi arma*, zorionak! Zure urtebetetze eguna dela esan didate, eta familia eta lagunekin primerako eguna pasa dezazun opa dizut. Besarkada bat!", esan zion Sanchez jokalaria bideoan.

Pozez zorutzen jarri zen Ekaitz bideo-oparia jasotakoan: "Sekula jaso dudan oparirik onena izan da. Betis taldeko jokalaria nire izena esaten! Ezin dut sinistu... ez dut sekula ahaztuko".

**Karapaixoa, oparia eskertzeko**

Kontuak horrela, orain dela bi aste, Betisek Realaren aurka jokatu zuen Anoetan, Donostian. Eta debagoiendar lagun batek bi karapaixo enkargatu zituen, Betis taldeko erizainari eraman behar zizkiola esanez. Hala, Mari Carmenen lankide Rosak hauxe esan zion: "Zu, Mari Carmen, zergatik ez diogu eskertza-mezu bat bidaltzen karapaixoarekin batera?". Eta hala egin zuten.

Egun, jokalaria karapaixoa jaso zuen unea jasotzen duen argazkia dute jarrita okindegian. Bezeroek hiru arrautzako eta hiru txorizoko karapaixoa eskatzean, ea Joaquinen pazko-opila nahi duten esaten dute bertako langileek orain. Bezeroak harrirtuta gelditzen dira: "Argazkiari mugikorarekin argazkiak ateratzera dator jendea, eta harrirtuta gelditzen da. Nork daki... agian, hemendik aurrera, Sanchezen izena jarriko diogu karapaixoari".

## GALDEGAZTE: PELLO ZABALA

GOIENA TELEBISTA

APIRILAREN 25EAN, EGUENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

ARRASATEKO INSTITUTUKO IKASLEEK ELKARRIZKETATUKO DUTE  
PELLO ZABALA FRANTZISKOTARRA, JOKIN BEREZIARTUAK LAGUNDUTA

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:

DEBAGOIENEN  
IKASTETXEA

**goiena**  
Zu hemen zaude.

